

Urtekaria

The graphic features the year '2020' in large white numerals on a red background. Each numeral is filled with a collage of images from the Basque Country in 2020. The first '2' shows a modern building and a man in a blue shirt. The first '0' includes a protest with a 'ZALDIBAH ARGITU' banner, a woman with glasses, and a group of people. The second '2' features a person in a blue shirt, a protest with a 'MILA ESKER DANOI' banner, and a person in a blue shirt. The second '0' shows a man in a suit, a person in a blue shirt, and a protest with a 'SOSTALARITZA' banner. The final '2' includes a man in a suit, a person in a blue shirt, and a protest with a 'SOSTALARITZA' banner. The final '0' shows a man in a suit, a person in a blue shirt, and a protest with a 'SOSTALARITZA' banner. The background is decorated with white virus icons.

A G I R R E
H O R T Z K L I N I K A

**Ute
herri
on!**

l. bargarai 32, beheña BERGARA | agirrehortzklinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28



Goiena Klubeko bazkidetza **%30 merkeago**

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso dugu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, 2020. urtean Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo orain bazkide egiten bazara, zerga onurak ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik.

Goiena Klubeko bazkidetza kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortpena egiterakoan.

BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2021EKO URTARRILAREN 31



Hainbat komertziotan deskontuak. | Puntua aldizkaria astero etxean.
Deskontuak Goienako iragarki salikatu eta eskeletan. | Zozketak eta promozioak.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

AURKIBIDEA

URTEKARIA DEBAGOIENA 2020

Urtea hilabetez hilabete	
Urtarrila	4
Otsaila	6
Martxoa	8
Apirila	10
Maiatza	12
Ekaina	14
Uztaila	16
Abuztua	18
Iraila	20
Urria	22
Azaroa	24
Abendua	26

Protagonistak	28
----------------------	----

Aztergai	
Koronabirusa	30
Ekonomia 2020	36
Kirola 2020	38
Kultura 2020	40

Urteko pozak eta penak 42

Datorrena	
Gizartea 2021	44
Ekonomia 2021	45
Kirola 2021	46
Kultura 2021	47

EDITORIALA

Zaindu maite duzun... gertuko hori

Ehundik gora hildako –ia erdiak zaharren egoitzetan– eta ia 4.500 kutsatu. Debagoieneko populazioaren %6tik pasa. Amaitzera doan 2020 honetan, COVID-19ak laga dizkigun zenbaki egiaztatu nabarmenenak. Datu adierazgarri horien atzean, pertsonak eta bizipenak: gertukoren bat galdu dutenenak; lan barik geratu direnenak; denda, fabrika, enpresa... itxi behar izan dutenenak; ametsak, asmoak, negozio aukerak..., bat-batean, zapuzturik ikusi dituztenenak.

Urte zaila izan da. Batik bat, osasun zerbitzuetan edo egoitzetan lehen lerroan daudenendako. Zaila, erakundeetan ardura postuetan daudenendako, gogoz kontrako erabakiak egun batetik bestera hartu behar izan dituztenendako... Zaila, neurri murriztaile beharrezkoen ondorioak bizkar gainean jasan behar izan dituztenendako. Herritar arduratsuendako ere bai. Denendako.

Debagoieneko udalek ere, gainerako erakunde publikoek, enpresek eta, oro har, herritarrek bezala, doitu egin behar izan dituzte diru balliabideak. Eta proiektuak baztertu, aldatu edo egokitu. Premiazkoari garrantzia eman. Laguntzak, ekimenak... asko eta askotarikoak izan dira. Eta horri esker eutsi zaio –hala moduz bada ere– gertuko merkataritzari eta ostalaritzari, azken honek laguntza gehiago eskatu arren. Eutsi zaio komunitateari, neurri handi batean, komunitateari esker.

Inflexio-punctua

Inflexio-puntu bat ekarriko du –ekarri beharko luke– 2020 honek. Alor askotan. Aldatu beharra izango du munduak. Bide egokian aldatu. *COVID-19: eta ondoren zer?* Buruan bueltaka galdera hori. Erantzun ziurrik, inork ez. Telesforo Monzon eLab Laborategiak argitaratu berri duen liburu horretan bildu ditu erantzun batzuk, hainbat euskal adituren ikuspegi eta hausnarketak. Izan ere, ezer ez da berdin izango aurrerantzean, bizi ohituretatik hasita. Krisi honek azkartu egin ditu bazetozen joerak. Online zerbitzuek –salmentak, *streaming* bidezko ikus-entzunezkoak, batzar telematikoko...– indarra hartu dute, eta, ondorioz, enpresa teknologiko global ahaldunak, gobernuen eta estaturen gainetik dauden horiek, indartsuago atera dira krisitik.

Txertoa bertan da, eta izurritea gainditzten hasteko lehen argi izpiak ekarri ditu. COVID-19aren ostekoa, beharrezko eraldaketa soziala, kudeatu ahal izateko norabide egokian, komunitarioan, elkarlanean eta modu jasangarrian, forma hartzen joan dira urte honetan Debagoienean, aipatutako Monzon Laborategiaz gain, Debagoiena 2030 eta Arantzazuko Gizarte Berrikuntza laborategiaren proiektuak ere. Goiena Komunikazio Taldea ere horietako parte da. Izan ere, gertukoena inoiz baino sarri eta ozenezago aldarrikatu den urte honetan –gertuko komertzioa, jabetzea, kultura, auzolana...–, ezin ekuazioetik kanpo utzi komunikazioaren alorrean gertukoa dena, benetan bertakoa

GERTUKOENA OZEN ALDARRIKATU DEN HONETAN, BERTAKO HEDABIDEAK ERE ALDARRIKATU BEHAR

sozial eta komunikazio-bide indartsuen aldean. Horiek ez dituztelako interesik hemen gertuan, hemengo erabiltzaileek –herritarrak– ematen dieten kopuruaz harago.

dena: Debagoieneko euskara
elkarteen, udalena eta
langileen den euskarazko
hedabide eta komunikazio
taldea –bide batez, aurtun hogei
urte bete dituen–, enpresa
teknologiko global guztiz
ahaltu horienak diren sare

Mundua aldaraziko duen 'txertoa'

Foru Aldundiak berriki eman ditu ezagutzera gipuzkoarrei oraintsu egin zaien galdeketa-aren emaitzak. Gipuzkoarren iritziz, adinekoak babestea, krisiak gehien kolpatu dituen sektoreei laguntzea, kalitatezko enplegua sustatzea eta ekonomia indartzea dira, besteak beste, erakundeek lehenetsi beharrekoak. Herritarrek diotena aintzat hartzea da erakunde-
en egitekoa. Eta erabakietan ondo asmatzea. Eta herritarrena, arduratsu jokatzeko; jarrera kritikoz, betiere. Ona litzateke norabide egokian aritzea, batera, erakunde zein herritar, interes partikularren gainetik, komunitatearen mesedetan.

Txertoa bertan da. Biziak salbatzen lagunduko du. Hori da inportanteena. Munduaren norabidea aldaraziko duen txertoa pertsonak dira. Zu zara. Gu gara. 2021 on!



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.es

Argazkiaz
Erredakzioa,
Durangoko Azoka,
LA Tech Athletic
Communications,
Mondragon Unibertsitatea,
Mikel Gantxegi, SPRI,
Kutxa Kultur.

Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma, Amaia
Martinez de Arenaza,
Inaki Iturbe.

Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Garazi Azpeitia.

Administrazioa
Ane Berebizar.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarola Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.es

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otarola Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate,
Goizatz Arana, Monika
Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Inaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa
arduraduna**
Igone Osinaga.

Erredakzioa
Aitziber Aranburuzabala,
Arantazu Ezkibel,
Eneko Azurmendi,
Imanol Beloki,
Jose Olabarria,
Jone Bilbao, Karmele
Uribesalgo,
Maialen Santos,
Maidar Arregi,
Mirari Altube, Miren Arregi,
Jokin Bereziartua,
Xabier Gorostidi,
Mireia Bikuña

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarola Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.es

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarola Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.es

Lege Gordailua:
SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



IKERKETA ARDURATUA
EUSKARA INSTITUTEA

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERGARA

Txemi Etzebarria Musikaria

Bilbao Musikan jokatu zuten Orkestra Zuzendaritzako IV. Topaketan, gaur egun Herbehereetan bizi den Bergarako musikaria izan zen onena, bandako musikarien epaimahaiak erabakita.



ARRASATE

2020ko Gipuzkoako lehen jaioberria

Adei Madina Lopez –Esti Lopezen eta Iban Madinaren semea– urtarrilaren 1eko 01:48an jaio zen Debagoieneko Ospitalean; bera izan zen Gipuzkoako lehen jaioberria. 2,820 kilogramo pisatu zituen jaiotzean.

OÑATI

Anton Inza Aloña Mendi

33 urtean Aloña Mendiko presidente izan zen Inzaren ordezkoa aukeratzeko prozesua abiatu zuten; elkarteko idazkaria eta diruzaina ere prozesu berean berritzea proposatu zuten.



ESKORITATZA

Zubia Pateak enpresan, listeria

Abenduan ekoiztutako lau medailoi lotetan atzeman zuten, barne kontrol bati esker; segituan kendu zituzten merkatutik, eta baita instalazioak garbitu eta desinfektatu ere. Ez zen kutsatutako kasurik izan.



ARRASATE

Bi gazte auto barruan hilda agertu ziren

Santa Teresa kalean –Arrasateko institutuko aparkalekuan– zegoen auto baten barruan 29 urteko emakumearen eta 25 urteko gizon-izekoaren gorpuak agertu ziren urtarrilaren 1ean. Biolentzia zantzurik ez zen izan; Ertzaintzaren ikerketen arabera, arnastu-tako gas pozoitsua izan zen heriotzaren eragilea.



DEBAGOIENA

"Pentsio eta bizitza duinen" alde, greba


Lan, pentsio eta bizitza duina lelopean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak urtarrilaren 30erako deitutako greba orokorrak eragin handia izan zuen Debagoiengan. Industrian, hezkuntzan eta merkataritzan izan zuen, bereziki, oihartzun handia deialdiak; kooperatibetan gutxiago, nahiz eta bozketak parekatuak izan.



ARAMAIO

Bertso bazkariak eta bisita gidatua Bertso Eguna ospatzeko

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek antolatu zuen, Aramaio-ko Udalarekin eta Aramaio-ko bertso-eskolarekin elkarlanean. Sekulako arrakasta izan zuen: bost bazkarietarako txartelak segituan agortu ziren. Euskal Herri osoko bertsolariak eta zaleak batu ziren; horien artean, eskualdekoak ere bai.



BERGARA

Garabi-kamioi batek su hartu zuen Candy pareko saihesbidean

Bergarako Ozaeta kalean izan zen. 07:20 bueltan piztu zen sua, kabinan; hiru suhiltzaile-kamioi bertaratu ziren eta 08:00etarako guztiz itzaltzea lortu zuten. Ez zen zauriturik egon. Garbiketa lanek hainbat orduz iraun zuten eta horrek eragina izan zuen zirkulazioan, hainbat mozketaren behar izan zituzten eta.



ARETXABALETA

'Egin dezagun jauzi handi bat' liburua

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek, UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak elkarlanean osatu zuten drogen kontsumoaren prebentzioan eragin gura duen lana. Orain dela bi urte abiatutako U@DA proiektuaren baitan dago kokatuta. 1.100 ale argitaratu zituzten eta 500 familiari eta UDAko kirolariei banatuko zizkieten.



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Urte berri on!



Intxaurtxueta 16, behea
ESKORITATZA
T.: 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

ARETXABALETAKO

Oihana Aldai Futbolaria

Iaz Real Sociadadeko atezaina izan zenak Donostiako Udalak emandako Urrezko Danborra jaso zuen gainontzeko taldekideekin batera. Aurten, Kordobako Pozoalbense taldeak fitxatu du.



BERGARA

Bizipoza egitasmoa aurkeztu zuten

Euskal Herrian jarduten duten askotariko elkarteak batzen ditu egitasmoak, eta horien balioak jasoz eta gizarteratuta herri inklusiboagoa eraikitzea da euren helburua; Seminarixoan izan zen aurkezpenetako bat.

ARRASATE

Malen Ruiz de Azua Atleta

Azken urteotan ordezkatu duen Super Amara BAT taldea utzi eta Espainiako eta Europako Ligako txapeldun izan den Valencia Sport taldeak fitxatu zuen Arrasateko pertika jautzilaria.



ELGETA

Kontsumo taldea abiatu zuten

Hamalau familiarekin abiarazi zuten taldea eta hala hasi ziren Ziarreta baserriko Iñigo Gabilondoren ekoizpenak astero jasotzen, eta baita Gabi Romerok Arrazolatik astean birritan ekarritako ogi ekologikoa ere.



DEBAGOIENA

DKS sariak ekitaldia egin zuten Seminarixoan

Mankomunitateak eta udalek bat egin zuten 2019ko eskualdeko kirolariak saritzeko. Mikel Aristi txirrindulariak jaso zuen nagusia, eta talde onenarena, Eskoriatzako KEko areto futboleko gizon-zukoei. Kirol ibilbidearena, Markel Irizarrek; Antxintxika Triatlloi Taldeak, sari berezia; eta herritarrena, Mikel Linazisorok.



ARETXABALETAKO

Lesboserako 1.500 kilo elikagai batu zituzten

Lesboseko errefuxiatu kanpamentuetan bizi direnentzako otorduak prestatzen dituen Zaporeak elkarteari laguntzeko, elikagaien bilketa abiarazi zuen UDA kirol elkarteak. Hala, sail guztietako jokalariek ez ezik, Aretxabaletako eskolek, enpresek eta herritarrek ere emandako laguntzari esker 1.000 kiloko erronka gainditu zuten.

OÑATI

Oñatz dantza taldea 50. urteurrena ospatzen hasi zen

Taldearen 50 urteen historiaren parte izan diren 50 pertsonak egindako soka dantzarekin ekin zieten ospakizunei, Oñatzen ezaugarri nagusia, transmisioa, irudikatuz horrela. Aurkezpen ekitaldian azaldu zuten hilabete bakoitzean gai bat jorratzeko asmoa zutela; horien artean, Inauteriak eta Corpus eguna.



OÑATI

Indarkeria matxistari eraginkor erantzuteko protokoloa, sinatuta

Oñatiko Udalak, Osakidetzak eta Barne Sailak sinatu zuten protokoloa; eta Izaro Elorza alkateak azaldu zuen "helburu nagusia koordinazio mekanismoak finkatu, irizpide bateratuak ezarri eta herritarren inplikazio aktiboa bilatzeko bitartekoak ezartzea" dela, "erantzun integrala emateko erasotuari".



Odontologia estetikoak
Endodontzia
Implantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklina.eus

ARAMAIO

Ander Fernandez Futbolaria

UEFAren Erregioen Kopa jokatu zuen, Euskadiko selekzio amateurrarekin, otsaileko bigarren asteburuan. Lehen partiduan kanporatu zituzten, Galiziaren aurka 2-3 galduta.



ARETXABAETA

Landaola saria, Alekarentzat

Gipuzkoako Landa Garapen Elkartearen Federazioak otsailaren 7an banatu zituen Landaola sariak, Aretxabaetan. Beizamako Aleka izan zen garaile, Euskal Herriko hazi ekologikoen proiektuagatik.

ARRASATE

Musika etxe berriko lanak, geld

Otsaileko osoko bilkuran, lanak gelditu zeudela aipatu zuen Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek. Hurrengo astean, Lurgioen enpresarekin kontratua bertan behera uzteko asmoen berri eman zuen Gobernuak.

BERGARA

81 urteko bergararra hil zen Mugarran

Luis Mari Mujika *Balento* esperientzia handiko bergarar mendizalea Mugarra mendian hil zen, otsailaren 2an. Sakan batetik erori zen, familiako kideekin mendi irteera egiten ari zela.



ELGETA

Eitzagara manifestazioan, erantzukizun eske

Otsailaren 16an, milaka lagun batu ziren Eitzagan, Zaldibarko Zabortegiko aferan gertatutakoa salatzeko. Hainbat herritatik abiatutako manifestazio zutabeak elkartu ziren bertan, eta horietako bat Elgetatik irtendakoa izan zen. 100 lagun inguru batu ziren zabortegian, geratutakoarekiko "kezka eta haserrea" azaltzeko.



BERGARA

Amodiozko gutunen lehiaketa, inoiz baino bergararrago

Bost sarietatik hiru herriko bi gaztek jaso zituzten: Karmele Uribesalgok helduen epai-mahaiaren sari nagusia eta Gazteen saria eskuratu zituen eta Izar Odriozolak, ordea, bergararik onenarena. Bigarren saria eta esaldi onenarena, bestalde, Hondarribiko Ainara Elizondok jaso zituen.



OÑATI

Sokতিরাকo Munduko Txapelketan, bi urrezko domina

Ione Elorza esku bete domina itzuli zen otsaileko hirugarren asteburuan Letterkenyn (Irlanda) jokaturako Munduko Sokatira Txapelketatik. Arabako Badaioztaldeaekin lortu zituen dominak: 540 kilokoa, Beti Gazte nafarren aurka; eta 500 kilokoa, Taiwango Jinmeiren aurka.



ARETXABAETA

Betion-ek egoitza berria inauguratu zuen

Otsailaren 19an, Euskadiko Betion Telelaguntza zerbitzuak zentro logistikoa berria zabandu zuen Aretxabaetan. Debagoien, Debabarren, Durangalde, Gorbeialde eta Goierriko eskualdeetan bizi diren 6.653 erabiltzaileei zerbitzu hobea eta eraginkorragoa emateko helburuarekin egin zuten Aretxabaletako egoitzaren alde.

OÑATI

Zubillaga-Oñatiko hiltzeak, komunikazio estrategia berria

Garai berriei aurre egiteko, salto komunikatibo handia egitea erabaki zuen erakundeak, eta, bezero eta kontsumitzaileei zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko eta harreman hori beste hurbiltasun batekin egiteko, irudi, webgune eta komunikazio kanal berriak aurkeztu zituen otsailaren 12an.



MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian espezialista
Urte berri on!

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

OÑATI

Euskal errepublika ospatzeko, azoka

Otsailaren 15ean, proiektu burujabeen azoka egin zuten Herriko Plazan. Goienerekin, Ortuzabalak, Koop 57k, Ereindajenek, eta Izarkomek hartu zuten parte, besteak beste.

ESKORIATZA

Babes feminista Marixol Iparragirrerri

Debagoieneko herri desberdinetako mugimendu feministako kideak Eskoriatzako Ibarraundi museoa elkartu ziren otsailaren 13an, preso eskoriatzarraren askatasuna aldarrikatzeko.

ELGETA

36ko gerrako lau lehegailu Karabietan

laz uztailen antzerako beste bi lehegailu agertu ostean, otsailaren 1ean beste lau gehiago aurkitu zituzten. Abisua jaso ostean, Ertzaintzak eremua itxi zuen eta hurrengo egunean leherrarazi zituzten.

ANTZUOLA

Beñat Etxabe eta Ainar Urrutia Korrikalariak

Biak izan ziren azkarrenak Antzuolako 8 Milietan. Beñat Etxabe errekorra haustetik bi segundora geratu zen eta Ainar Urrutiak bi minutuko aldea atera zion Ane Zabalarri.



OÑATI

Beskoitze eta Oñati, oholtza gainean batuta


Txantxiku Ikastolak eta Beskoitzeko Ikastolak elkarrekin antolatutako kontzertuan lepo bete zen Oñatiko parrokia, otsailaren 2an. Sarrerekin batutako dirua Lapurdiko ikastola laguntzera bideratzea zen asmoa, eta oñatiarrek ez zuten kalerik egin. Ikastola hiru ikasleekin abiatu zen 2013an, eta aurten, adibidez, 39 izan ditu.



ARETXABALETA

Komertziorik gabeko herria irudikatu zuten

Otsaileko azken astean, *Salgai* kartelak jarrita agertu ziren herriko denda ugari. Aretxarteko kideek jarri zituzten, herritarrengan ikusmina sortzeko eta, era berean, pentsarazteko. "Herritarrek gero eta gehiago erosten dutela Interneten uste dugu, eta, horren aurrean, protesta gisa, jarri dugu abian kanpainatxo hau".



OÑATI

Oihana Arana garaile 'Dizdaitte' txapelketan

Otsailaren 29an, final polita eta parekatua jokatu zuten Oñatiko Antixena gaztetxean, eta eskoriatzar bertsolari gazteak merezimendu osoz lortu zuen txapela janztea; Txaber Altube abadiñarra izan zen bigarren eta Ane Zuazubiskar arrasatearra hirugarren. Ikusle kopuru ona batu zen, eta bertsolarien lana eskertu zuten.

ANTZUOLA

Herriko hezkuntzari buruzkoak, liburu batean laburbilduta

Iñigo Ramirez de Okariz historialariak *Hezkuntza Antzuolan* liburua aurkeztu zuen otsailaren 27an, eta antzuolar herrikideen "harrera beroa" jaso. Herriko auzo ezberdinetako ikastetxeen argazki eta materialez osatutako erakusketa ere inauguratu zuten, eta martxoaren 8ra arte egon zen ikusgai.





EGUZZKIGRAF inprimategia
 Tel.: 943 79 18 44 - 688 619 661
 info@eguzkigraf.com
 Industrialdea F-O-4
ARETXABALETA

2021a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.

Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.

ARRASATE

Hitzarmena ertzain eta udaltzainekin

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Eusko Jaularitzak, erabilgarri dauden polizia baliabideak optimizatzeko eta segurtasun publikoko premiei erantzuteko.

OÑATI

Konpost-ontzi berriak jarri zituzten

Auzo-konpost guneetako ontziak aldatu egin zituzten, eta edukiontzi handiagoak eta material gogorragoarekin egindakoak jarri. Konposta azkarrago egiteko eta arratoiak saihesteko egin zuten aldaketa hura.

ARRASATE

Isaias Carrasco omendu zuten

Navas de Tolosa kalean 2008an erail zuten ETAk zinegotzi sozialista izandako Isaias Carrasco, eta leku horretan egin zioten omenaldia martxoaren 7an. Gipuzkoako PSE-EEko ordezkariak parte hartu zuten.

BERGARA

Agur Olinpiar Jokoei

2020ko Tokioko (Japonia) Olinpiar Jokoei agur esan zuten Mikel Linazisoro eskalataileak. Bertan egoteko urtebete itxaron beharra zentzuzkoa dela esan zuten.



ELGETA

'Zaldibar Argitu' herri plataforma sortu zuten

Otsailaren 6an Zaldibarko zabortegean gertatutako luiziaren harira, Zaldibar Argitu taldea martxan jarri zuten Elgetan. Martxoaren 12an, hiru orduko lanuztea egin zuten, eta baita manifestazioa ere. Zabortegean gertatutakoa argitu eta lur-jausiaren ondorioz desagertutako bi langileak aurkitu zitatzela eskatu zuten.

ANTZUOLA

Joseba Erostegei 'Eltzikorta' aske geratu zen

Martxoaren 15ean irten zen *El-
tzikorta* Herrera de la Manchako espetxetik. 22 urte eta zortzi hilabete eman zituen preso, guztira, eta egun hartan emaztea eta anai-arrebak joan zitzaizkion espetxera bila. Behin Antzuolara iritsita, etxera bidean, etxetako balkoietatik herritar ugariren agurra jaso zuen.



KORONABIRUSA



DEBAGOIENA

Osasun larrialdi egoera jarri zuten indarrean

Lehendakariak osasun larrialdi egoera ezarri zuen, eta martxoaren 15etik aurrera Espainiako presidentek larrialdi egoera osoa eta konfinamendua ezarri zuen herritar ororendako. Sektore asko gelditu behar izan ziren –adibidez, ostalaritza–, baina beste batzuek zerbitzua ematen jarraitu zuten, neurri bereziekin; farmaziek eta elikadura dendeak, esaterako. Debagoieneko Ospitalean gogor aritu ziren lanean kutsatuak artatzen, eta zaharren egoitza batzuetan bisitak eten zituzten. Enpresa asko itxi zituzten, eta langile batzuk telelana egiten hasi ziren. Udaltzaingoak eta Ertzaintzak salaketa ugari jarri zituzten konfinamendua hausteagatik.



DEBAGOIENA

137

lagun kutsatu ziren martxoan

Martxoaren amaierara arte, 137 kutsatu egon ziren Debagoienean; horietako erdiak, Arrasaten. Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin 20 kutsatu inguru zeuden; aldez, Leintz Gatzagan eta Elgetan oraindik ez zegoen koronabirus kasurik. EAEn 6.838 kutsatu zeuden; eta horietatik 20 zeuden Debagoieneko Ospitalean.



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6.behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Urte berri on!



DEBAGOIENA

Huhezinema online bidez egin zuten

Martxoaren 25etik 27ra bitartean egin zuten Mondragon Unibertsitatearen film laburren XIII. jaialdia, online. Ikus-entzunezko eduki guztiak *streaming* bidez eskaini zituzten, eta sari banaketa ere hala egin zuten.

ARRASATE

Carlos Ruiz Doktoregoa

30 urteko Nikaraguako gazteak Mondragon Unibertsitatean egin zuten doktoretza-tesia bideokonferentzia bidez aurkeztu zuen martxoaren 17an. Esperientzia aberasgarria izan zela zioen.



DEBAGOIENA

Kobazuloetako zikina atera zuten

Aretxabaletako Arronkondoko koba barruan pilatutako bi tona eta erdi hondakin atera zituzten martxoaren 7an Euskal Herriko eta kanpoko hainbat espeleologok. AMETeko kideek gidatu zituzten garbiketa lanak.

ESKORIATZA

Igone Armendariz eta Garazi Estebez

Omenduak

Martxoaren 8an Eskoriatzatik Aretxabaletara egin zuten laugarren Aresko martxan omendu zituzten biak, erreferente direlako.



ARETXABALETA

Aretxabaletarra izan zen Gipuzkoako lehen koronabirus kasua

Eider Gabilondo aretxabaletarrak koronabirusa zuela baieztatu zuten ingurukoei eta GOIENari, martxoaren 3an. Gipuzkoan konfirmatutako lehen kasua izan zen hura. Milanera bidaia egin ostean sentitu zen ondoezik emakumea, eta, positibo eman eta gero, hamalau egunez isolatuta egon zen.



DEBAGOIENA

Jaurilaritzak eskola guztiak itxeko agindua eman zuen

Arabako kutsatutakoen kopurua ikusita, Aramaioko herri eskola itxi zuten martxoaren 12an, eta hurrengo egunean itxi zituzten Gipuzkoako –tartean, Debagoiena– eta Bizkaiko eskola guztiak. Hamabost eguneko etenaldia izatea aurreikusi zuten arren, ikasle askok etxetik lanean amaitu zuten ikasturtea.



ARETXABALETA

Oihana Aldai futbol jokalaria erizain lanetan hasi zen

Koronabirusak sortutako egoera ikusita, erizain gisa lanean hasteko erabakia hartu zuen aretxabaletarrak –erizaina baita ikasketaz–. Horretarako, Kordobako Pozoalbense klubaren baimena behar zuen, talde horretako atezaina baita urtarilaz geroztik. Zumarragako ospitalean aritu zen gaixoak artatzen.



DEBAGOIENA

Martxoaren 8an aldarri feministak bailaran

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, berdintasunaren aldeko aldarriak egin zituzten Debagoieneko herrietan. Elkarretaratzeak eta manifestazioak izan ziren nagusi, eta borroka feministara batzeko deiak entzun ziren bailara osoan. Herri batzuetan, gainera, ekintza feministak eta bazkariak ere antolatu ziren.

DEBAGOIENA

2.644

langabe

Osasun krisiaren eraginez, otsailan baino 207 langabe gehiago egon ziren martxoan. Hala, guztira, 2.664 pertsona zeuden langabezian Debagoienean. Oro har, pandemiak EAE osoko lan merkatuan izan zuen eragina, eta 10.974 langabe gehiago egon ziren hilabete hartan; horietako asko, zerbitzuen alorrean.

BERGARA

Gipuzkoako Topaketa Sozialistak egin zituzten, lehen aldiz

Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta, otsailaren 28 eta 29an egin zuten topaketa. Egitarau oparoa antolatu zuten, eskualde ezberdinetako kideekin harremanak garatu eta komunitate politikoa sendotzea helburu. Gaur egungo testuinguru politikoa aztertu eta etorkizuneko erronkak ere finkatu zituzten.



oerlikon balzers

Uste
berri on!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

DEBAGOIENA

Umeak kalera irteten ziren berriz ere

Martxoaren 15a ezker lehenengoz irteten ume asko kalera, apirilaren 26an. 14 urtetik beherako umeak gurasoek lagunduta ordubetez kalera irteteko baimena eman zuen Espainiako Gobernuak orduan.

DEBAGOIENA

Apirilaren 27rako, ospitalizazio gabe

"Ospitale garbia" zen Debagoieneko ospitalea apirilaren 27rako; krisia hasi zenetik ez zegoen koronabirusarengatik ospitaleratutako gaixorik. Hala, ohiko jarduna berreskuratzen hasi ziren apurka.

DEBAGOIENA


Kutsatu bareko "ospitale garbia"

Pandemia hasi zenetik, lehen aldiz, COVID-19 kutsaturik gabeko ospitalea – EAEko lehena – bihurtu zen Debagoienekoa, apirilaren 27an. Ondorioz, hasi ziren lehentasunezko ebakuntzak egiten.

ARRASATE

Fani Garai Emakume abertzalea

Urtebetetze egunean zendu zen, apirilaren 25ean, 106 urte bete berritan. Emakume Abertzaleen Batzako kide izan zen; haren omenezko kandela-piztea egin zuten Arrasaten.


 KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

COVID-19ak eragindako kalteei aurre egiteko laguntza

Koronabirusak eragindako kalteei aurre egiteko eta herriko ekonomia sustatzeko hainbat neurri ekonomiko hartu zituzten udalek; komertzio txikiei laguntzeko eta bertan erabiltzeko bonu txartelak erosteko web plataformak abiarazi zuten Oñatin: *Kut-tuna.org*; Arrasateko Udalak 930.000 euroko laguntza ekonomikoa iragarri zuen; Aretxabaletan, *Hemengaz!* ekimena jarri zuten abian herriko hainbat eragilek eta Udalak elkarlanean; Antzuolan, koronabirusak sortutako kalteak arintzeko 60.000 euroko laguntza onartu zuen Udal Gobernuak, herritarrei eta saltokiei laguntzeko.



DEBAGOIENA

Karabana egin zuten osasun langileek, eskerrak emateko

Osasun arloko langileei eta biztanle guztiei eskerrak emateko, karabana egin zuten anbulantziek, polizia eta suhiltzaileek apirilaren 25ean. Hamabi bat anbulantzia, Ambulancias Gipuzkoakoak eta Bizi-euskarri aurreratuak, ertzainen hiru-lau auto eta herri batzuetan udaltzainak elkartu ziren omenaldira.



ESKORIATZA

Maskarak egiteko boluntario taldea jarri zuten martxan

Maskarak egiteko boluntario taldea sortu zuten Eskoriatzan eta 500 maskara egitea lortu zuten apirilaren amaierarako. Homologatuak ez ziren arren, hamabost laguneko herritar talde batek behar zutenen artean banatzeko maskarak egin, eta herriko hainbat dendetan utzi zituzten eskuragarri.

ARETXABALETA

Mondragon Assembly maskarak egiteko makina sortu zuen

Mondragon Assembly maskarak egiteko makinak ekoiztuko zituela iragarri zuen eta lehen lau makinak Euskal Herrira heldu ziren. Hilean hamar milioi maska ekoiztea aurreikusten zuten. Proiektua Bexen Medical kooperatibaren laguntzarekin garatu zuten; hain zuzen, haien ardura izan zen maskarak egitea.



BERGARA

Balkoietatik ospatu zuten Erramu Zapatua bergararrek

Eguraldia lagun, herriko balkoi eta leihotetan ospatu zuten Erramu zapatua bergararrek, apirilaren 4an. Mahoizko arropak jantzita eta txorimaloak kalera ateratara kolorez bete zituzten herriko kaleak. Jai herrikoien konpartsak den Xaxauk ere hainbat ekintza antolatu zituen egunean bertan.

DEBAGOIENA

Aste Santuaren bezperan, ilarak supermerkatuetan

Aste Santuko jaiegunen bezperan, ilara luzeak izan ziren, apirilaren 8an, bailarako supermerkatuetan. Larrialdi egoera ezarri eta herritarrek konfinamenduan zeudenetik ohikoa zen erosketa egiteko ilaran itxaron beharra, baina Aste Santu bezperan igarri ziren bereziki ilara horiek.

DEBAGOIENA

242

lagun kutsatu ziren apirilean

Apirilaren 9a izan zen kutsatu kopuru handiena izandako eguna: 29 positibo; horietatik 26, Arrasaten. Apirilaren 1ean, 18 lagunek eman zuten positibo eta 16k apirilaren 11n. Apirila izan da positibo gehien atzeman diren hilabetea bailaran. Apirilaren 31ra arte, 389 pertsona kutsatu ziren, guztira, Debagoienean.

MUJIKAT

HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Ute berri on!

ELGETA

Leire Sangroniz Kimikaria

Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulu onenaren CAF-Elhuyar saria jaso zuen; polimero birziklatu aurreratuaren garapenari buruzko dibulgazio-artikulu izan zen saritua.



ARRASATE

Iturbideko kudeatzaileei salaketa ELAK

Langileen eta egoiliarren "osasuna arriskuan jarri izanagatik" ipini zuen salaketa. Epaitegiak, baina, sindikatuaren salaketa ezetsi zuen, kudeatzaileek ahal eta beharrezko neurriak hartu zituztela iritzita.

ESKORIATZA

Carlos Garcia Herritarra

Ebakuntza bati aurre egiteko laguntza ekonomikoa eskatu, eta 24 orduan behar zuen dirua batu zuen Carlos Garcia: 60.000 euro. Herritarren erantzunarekin oso eskertuta agertu zen.



BERGARA

Pentekosteak bertan behera


Debagoieneko lehen jai nagusiak, Pentekosteak, bertan behera uzteko erabakia hartu zuen Udalbatzak, aho batez, apirilaren 27an. Maiatzaren 29an ziren hastekoak jaiak.



ARRASATE

Biribilgunean, 'Arrasate-Mondragon' hitzak

Uribesalgo lantegi parean dagoen Araba etorbideko biribilgunean jarri zituzten *Arrasate-Mondragon* hitzak apirilaren 29an. Arrasateko Caldereria Markulete enpresak egin zituen letrak, eta Araba etorbideko urbanizazio lan berrien barruan egin zuten, nahiz eta 2019an aurkeztutako proiektuaren baitan ez egon.



DEBAGOIENA

Ikurrina balkoira herrietan, Aberri Eguna ospatzeko

Balkoietan eta leihoetan ikurrinak jarritz ospatu zuen hainbat herritarrek Aberri Eguna apirilaren 12an. *Txoria txori, Ikusi mendizaleak* eta halako kantuak abestuz aldarrikapen eguna izateko deia zuten egin, koronabirusagatik hildakoengatik doluminak adierazteko eguna ere bazela ahaztu barik.



ARRASATE

Juan Artzamendi Musika Etxeko lanak, etenda

Lanak geldi zeudela eta, udalbatzak Juan Artzamendi Musika Etxeko lanak egiten ziharduen Lurgoien enpresarekin zeukan kontratua etetea erabaki zuen. Obren likidazio txostenaren arabera, Lurgoienek 60.680 euro jaso zituen egin gabe dauden lanengatik. LKSren ardura "estaltzea" ere salatu zuen oposizioak.



**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

**URTE
BERRI
ON!!**

BERGARA

IAT martxan, neurri zorrotzak hartuta

Bi hilabetez itxita egon ostean, maiatzeko bigarren astean ireki zituen ateak Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko tailerrak, segurtasun neurri zorrotzekin. Lehen egunetan, bereziki, ilara luzeak sortu ziren.

DEBAGOIENA

Kutsatu kopuruak, beherako joera

Apirilean 242 kutsaturekin goia jo ostean, beherako joera hartu zuen COVID-19arekin kutsatutakoen grafikoak. Maiatzean, 60 lagun kutsatu ziren eskualdean, kutsatu gubxieneko urteko bigarren hilabetea, ekainaren atzetik.

ELGETA

100 egun igarota, Zaldibar argitzea nahi

Otsailaren 6ko ezbeharra "behingoz argitzea" eskatzeko ezohiko kale agerraldia egin zuten plazan, distantziak mantenduz: "Berriz ere aski da esateko elkartu gara". Erantzukizun politikoak exijitu zituzten.

565.000 LEINTZ GATZAGA **euro**

Maiatzaren 28an onartu zuen Leintz Gatzagako udalbatzak 2020rako aurrekontua. Inbertsioetarako "diru gutxi" izanda ere, turismoa bultzatzeko "ahalegin berezia" egitea adostu zuten osoko bilkuran.

 KORONABIRUSA

BERGARA

Wolfratex enpresa jaio zen, maskarak egiteko

Maskarak ekoizteko asmoz Bergaran sortutako Wolfratex enpresaren berri emateko agerraldia egin zuten hilaren 20an. Enpresa berria Lazpiur, Embalan 3, Servimasa eta Egile Taldearen elkarlanetik jaio zen, eta, ekainaren 5ean hasita, hilabeteazazpi milioi musuko ekoiztiko zituztela adierazi zuten aurkezpenean.



DEBAGOIENA

Jende pilaketekin hasi arren, terrazetan ere normaltasun berria

Maiatzaren 11n ireki zituzten terrazak, eta, bereziki, lehen egunetan izan ziren arazo batzuk, jende pilaketengatik. Udaltzainek eta ertzainek abisua eman behar izan zuten zenbait tabernatan. Hala ere, egun gutxira, arazorik ez zen izan apenas. "Herritarrak kontzientziatu egin dira", zioen Bergarako ostalari batek.



ANTZUOLA

Bertso saio ibiltaria puntako bertsolariekin


Sanisidrotakoa bertan behera utzi ostean, maiatzaren 30ean egin zuten bertso saio ibiltaria Maialen Lujanbiok, Miren Amurizak eta Beñat Gaztelumendik. Udaletxeko balkoitik abestu zuten lehenengo, eta ondoren, kamioi baten gainean bisitatu zituzten herriko sei auzo. Bertsolariak, bertsozaleak eta antolatzaileak, pozik.

Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizzak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

Urte berri on!!!



2.570 BERGARA
euro

Maiatzeko lehen astean egindako diru bilketa bati esker, Ndank Ndank elkarteak 2.570 euro lortu zituen Senegalgo Dionewar herrira bidaltzeko. Hango familia guztiei elikagaiak banatzea izan zen helburu nagusia.

OÑATI

Selma Huxley Barkham hil zen

Maiatzaren 3an hil zen, Chicest-en (Ingalaterra), 93 urte zituela, historialari kanadarra. XVI. mendeko *San Joan* baleontzia ikertu zuen, besteak beste. Lotura estua izan zuen Oñatirekin, 1973a ezker.

OÑATI

Arrikruz kobak, 2020ko ibilbide onena

Turinea webgune turistiko ezagunak Euskal Koben Ibilbidea aurkeztu zuen 2020ko ibilbiderik onena moduan. Arrikruz kobak ibilbide horren barruan daude; hilaren 31ra arte, 4.122 boto jaso zituen aukera horrek.

ANTZUOLA ETA OÑATI

Uxue Iparragirre eta Eider Egaña Futbolariak

Denboraldia suspenditu ostean, hil hasieran jakin zuten atzelari antzuolarrak eta atezain oñatiarrak Lehen Mailan jokatu dutela datorren denboraldian, Eibar taldearekin.



ARRASATE

'Txikiak egiten gaitu handi' kanpainari ekiten

Maiatzaren 28an iragarri zuen Udalak *Txikiak egiten gaitu handi* kanpaina, abuztuaren 31ra arte iraun zuena. Herritarrek, hamar euro ordainduta, herriko komertzioetan gastatzeko 30 euro jaso zituzten; Udalak, Ibai-arte elkartearekin elkarlanean, 15.000 bonu atera zituen. Lehen bi hilabeteetan 7.062 bonu saldu ziren.

ARETXABALETAK

Herriko merkataritza pizteko ia 1.000 bonu atera zituzten hilean

Hemengaz! ekimenaren baitan abiatu zuten kanpaina hilabete hasieran, "230.000 euro inguruko eragin ekonomikoa" sortzeko asmoz. Jarduera ekonomikoa suspertzeko martxan jarritako neurrietako bat izan zen, Udalak "lehentasunezko" jotzen duen tokiko kontsumoa bultzatzea eta dinamizatzea.



ELGETA

Euriaren ondorioz horma bat behera etorri zen

Lur-jausi baten ondorioz erori egin zen Lasao kaleko horma bat, eta hiru auto kaltetu zituen. Harriz lurperatuta geratu ziren bi auto bat eta beste bati kalteak eragin zizkion, baina ez zen inor zauritu. Lur-jausia gertatu zen lekutik autoak kendu zituzten auzotarrek, garabi baten laguntzaz. Beste kalte batzuk ere izan ziren herrian.



ARRASATE

Autoarekin harrapatuz atxilotu zuten bi labana zituen arrasatearra

Maiatzaren 23an, gizonezko bat atxilotu zuen ertzaintzak Martxoaren 8a kalean, eskuan bi labanarekin zihoala. Udaltzainen arabera, gizonezko arrasatearra ez zuen beste inor zauritzeko asmorik; bere burua zauritu zuen, lepoan eta eskumuturretan. Autoarekin nahita harrapatuta atxilotu zuten gizonezkoa.



ELGETA

Hainbat kolektiboren kezka Kutxabanken bulegoa ixteagatik

Hautsak harrotu zituen Kutxa-bankek bulegoa ixteko hartu zuen erabakiak. Aurrez aurreko zerbitzua ematen zuen banketxe bulego bakarra izanik Elgetan, alkateak, merkatariek, erretiratuek -Xalbadorpekoek sinadurak bildu zituzten- eta ohiko erabiltzaileek "zerbitzu murrizketa itzela" izango dela esan zuten.



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela



Gu ere
antzuolaiekin!
Urte berri on!

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

OÑATI

Udalak maskarak banatu zituen

Oñatiko Udalak antolatuta, eta *Saretuz* ekimenaren baitan, herritarrei mlusukoak banatzen izan ziren udaletxeko arkupeetan, ekainaren 18an hasita. Erositako musukoak eta herritarrek egindakoak banatu zituzten.

ARRASATE

MU, zilarrezko LEB mailara

Espainiako Saskibalo Federazioak MU saskibalo taldeari Zilarrezko LEB mailara igotzeko aukera eman zion. Hala ere, klubak ezezkoa eman zuen, azpiegitura eta baldintza ekonomikoak kontuan hartuta.

BERGARA

Irudi zaharra, Seminarixoko fatxadan

248 herritarrek parte hartutako aukeraketan, Udal Artxiboko Toribio Jauregi fondoko argazkia izan zen garaile. Hala, Domingo Irala kaleko Seminarixoko fatxadan jarri zuten argazkia, ekainaren 25ean.

ARRASATE

Euskara bultzatzeko konpromisoa

Euskaraldiaren bigarren edizioako hamabostekoa aurkeztu zuen hilaren 22an Arrasatek. Kultur, kirol eta enpresa esparruetako hainbat entitatek euskara bultzatzeko konpromisoa hartu zuten.

 KORONABIRUSA


OÑATI

Irunberriko gertaeren 30. urteurreneko ekitaldiak

Irunberriko gertaeren 30. urteurrenaren harira, Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra oroitzeko ekitaldia egin zuten Oñatin, ekainaren 26an. Egiari Zor Fundazioak antolatutako ekitaldia San Martingo zuhaiztian izan zen, eta bertan, egia osoa jakin nahi zutela aldarrikatu zuten.



ARRASATE

Ekitaldi sinbolikoa San Juan bezperan

San Juan bezperako ohiturei eutsi zieten Arrasaten, eta ekitaldi sinbolikoa egin zuten ekainaren 23an. Sua, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz taldeetako ordezkarien dantza saioa, bertsolarien, txistularien eta trikitilarien ekitaldiak, Goikobalu abesbatzaren emanaldia eta beste hainbat ekitaldi izan ziren.

DEBAGOIENA

'Normaltasun berria' izeneko iritsi zen ekainaren 20an

Alarma-egoeran hiru hilabete eman ostean, Hego Euskal Herriko herritarrak *normaltasun berria* izenekoan sartu ziren. Besteak beste, mugikortasuna berreskuratu zuten herritarrek, eta Euskal Herri osoan zehar bidaiaitzeko aukera ireki zen; Iparraldeko muga ere zabaldu zuten, gainera.

DEBAGOIENA

12

lagun kutsatu ziren ekainean

12 pertsonak eman zuten positibo Debagoienean. Ekainaren 8an, positibo bat izan zen Aretxabaletan eta hilaren 12an, lau. Egun berean, Arrasaten bat izan zen eta Oñatin beste bat. Hilaren 14an, bakarria Aretxabaletan eta 15ean ere bat Oñatin. Bergaran, hilaren 19an bat eta 29an beste bat; Arrasaten, berriz, bi -452 metatuak-.



ARAMAIO

'Esparru guztietan' erabakitzeko aldarria

Ekainaren 7an, *Hamaika gara* ekimenaren barruan, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarrikapen ekitaldia izan zen Aramaion. Udaletxeko arkupeetan jarri zuten informazio mahaia, produktuak saltzekoa eta aldarrikapenak idazteko tokia, eta gero, mosaikoa osatu zuten.



Julen Uribeetxeberria Txintxurreta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Urte
berri
on!

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI • Tel.: 943 78 01 54



DEBAGOIENA

Eraldaketa soziala eskatu zuten

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak –sindikatu eta eragile askotako plataforma– mobilizazioak deitu zituen hilaren 19rako. Baitarako zenbait herritan bat egin zuten aldarrikapenarekin.

ESKORIATZA


20 urte bete ditu Aste Zapatistak

EskoZap taldeko kideek ezin izan dute 20. urteurrena ohi moduan antolatu. Hala ere, herriko zenbait eraikinetan muralak jarri zituzten, eta janari bilketa eta esker-bidea egin, ekaineko hirugarren astean.

ARRASATE

Amaia Albes Diseinatzailea

SUDC elkartarekin elkarlanean, Amaia Albes diseinatzaileak egin zituen Arrasateko haurren danborradako jantziak berritzeko eta eguneratzeko diseinuak.



ANTZUOLA

Galeano ahizpak
Pilotariak

Leire eta Nagore Galeano ahizpek Emakume Master Cup txapelketako finalean ezin izan zuten txapela eskuratu Agirreren eta Maite Ruiz de Larramendiren aurka.



OÑATI

Triatloi egokituko saila sortu, eta aurkezpena izan zen

Antxintxika Triatloi Taldeak triatloi egokituko saila sortu zuen. Hala, ekainaren 29an, taldearen aurkezpena egin, eta sail berria osatzen duten Joseba Azkarate oñatiarra, Ruben Viso eta Igarki Pascual kirolariak aurkeztu zituzten. Gainera, Aitor Rementeriak proiektuaren azalpenak eman zituen.



OÑATI

Iñigo Urkullu lehendakariaren bisita

Ekainaren 3an, Oñatiko Larraña Etxea asilo-eskatzailen harrera-zentroan izan ziren Eusko Jaurlaritzako ordezkariak; tartean, Iñigo Urkullu lehendakaria. Eta, berarekin batera, Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia eta Monika Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.



DEBAGOIENA

Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna


Elkarretaratze jendetsua egin zuten ekainaren 28an, Arrasateko Biteri plazan –goiko argazkia–, eta Yogurinha Borova abeslariaren *Sentipenak askatu* kantarekin eta dantzarekin eman zioten amaiera ekitaldiari. Aretxabaletan, berriz –eskuineko argazkia–, gazte mugimenduak performance berezia egin zuen Durana kalean.



OÑATI

Xabin Usandizaga euskal preso oñatiarra, aske

Ekainaren 5ean geratu zen aske Xabin Usandizaga euskal preso oñatiarra, ia 23 urte espetxean egin ostean. Zain zituen Kordobako espetxe atarian emaztea, alaba eta anaia bat. 1997ko uztailaren hasieran atxilotu zuten Usandizaga, Ortega Lara askatzeko operazioaren baitan, 37 urte zituela.



urte berrian,
asmo berriak.
2021 on.

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK

ERREKA

erreka.com

ARETXABALETA

Gizonezko bat hil zen Urkulun bainuan

25 urteko gizonezko bat hil zen uztailaren 31n Urkuluko urtegian. Gaztearen lagun taldeak uretatik ateratzen ez zela ohartuta 112ra deitu, baina Ertzaintzaren urpekari taldeak ezin izan zuen gizonkoa suspertu.

ESKORIATZA

Maixol Iparragirrerren epaiketa salatu

Maixol Iparragirrerren aurkako epaiketa hasi zuten uztailaren 7an, eta Maixol Askatu ekimenak eta Sarek deituta elkarretaratzea egin zuten Fernando Eskoriatza plazan, "epaiketaren kontra jarraitzeko".

OÑATI

Arantzazun konfinamendu-hotela

Uztailaren 16an hasi ziren COVID-19arekin kutsatutako gaixo asintomatikoak edo berrogeialdia pasatu behar zuten pertsonak hartzen. Abuztuan, batez beste, egunero 20-25 pertsona egon ziren, 45 logelatan.

BERGARA

Positiboen igoeragatik neurri bereziak

COVID-19 kasuen gorakadaren ondorioz, osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartu zituzten uztailaren 20an Bergaran. Herriko jatetxeei, elkarte gastronomikoei eta tabernei zuzenean eragin zieten neurriek.

KORONABIRUSA




DEBAGOIENA

Maskara erabiltzea derrigor, uztailaren 17tik

Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izan zen uztailaren 17tik aurrera EAEn. Aurretik, metro eta erdiko segurtasun neurria bermatuta ez zegoenean soilik zer beharrezkoa. Hala, bai kalean eta baita erabilera publikoko establezimendu guztietan derrigortu zuten erabilera, kirola egiteko edo jan eta edateko salbu, besteak beste.

**Eusko
Legebiltzarrerako
hauteskundeak
Debagoieneko
emaitzak**

ITURRIA: EUSKO
JAURLARITZA



**AITOR
URRUTIA**
EAJ



**LORE
MARTINEZ**
EH BILDU



**ANDER
RODRIGUEZ**
EH BILDU



**ALBERTO
ALONSO**
PSE-EE



**REBEKA
UBERTA**
EH BILDU



**LUIS JAVIER
TELLERIA**
EAJ

DEBAGOIENA

EH Bildu garaile Debagoienean, aldea handituta

2016ko emaitzak hobetu zituen uztailaren 12an EH Bilduk, botoen %45,30 lortuz. Herri guztietan gailendu zen, Eskoriatzan izan ezik. EAJ izan zen bigarren indarra; PSE-EE hirugarrena. Elkarrekin Podemos-IU laugarren postura jaitzi zen, boto galera handiarekin.

ARRASATE

Santa Teresako bizilagunak batuta, konponbide eskean

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako bizilagunek elkartea sortu zuten, auzoak dituen arazoak kolektiboki aldarrikatzeko. Irisgarritasuna eta eustehormen prekaritatea ahalik eta azkarren konpontzeko inbertsioak eskatu zituzten. Mila lagunetik gora bizi dira eta %25ek 65 urtetik gora dituzte.



DEBAGOIENA

141

lagun kutsatu ziren uztailaren

Uztailaren hilabetearen zehar 141 pertsona eman zuten positibo Debagoienean. Uztailaren 17an bost positibo berri atzeman zituzten Bergaran; 11 kasu uztailaren 19an. Arrasaten ere sei positibo atzeman ziren egun bakarrean, uztailaren 18an. Oñatin bost kasu atzeman zituzten uztailaren 30ean.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Urte berri on!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



OÑATI

Vox-ek kanpaina ekitaldia egin zuen

Vox alderdiko ordezkariak agerraldia egin zuten uztailaren 8an plazako pilotalekuan. Foruen plaza ehunka lagun ez bete zen, Vox alderdiaren ordezkarien agerraldia salatzeko, *Gora Oñati Antifaxista* lelopean.

OÑATI

Barneko turismoa, bertatik bertara

Uemak eta zenbait udalek abian jarri zuten Bertatik Bertara kanpaina uztailaren 8an; tartean, Oñatin. 2020ko udan barneko turismoa indartu gura zuen ekimenak, euskara izanik harremanetarako hizkuntza.

ARRASATE

Eider Zumalde Herritarra

Egunean behin jokoaren 87.000 partaideen artean Eider Zumalde arrasatearra izan zen 4. denboraldiko irabazlea. Etxekoekin talde-lanean jokatzeko zuela azaldu zuen.



OÑATI

Eraso matxista gaitzesteko bilkura

Oñatiko Sare Feministak deituta, elkarretaratzea egin zuten uztailaren 14an. Uztailaren 10ean herrian izandako eraso matxistaren aurrean "autodefentsa feminista" aldarrikatu zuten.



BERGARA

Batzar Nagusien osoko bilkura ibiltaria

Urtero uztailaren 2an egiten den Gipuzkoako Batzar Nagusietako osoko bilkura ibiltaria Bergaran egin zuten. Aurretik, Bergarako ohorezko udal liburuan sinatu zuten Markel Olanok, Gorka Artolak eta Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakariak.



OÑATI

Urbiako larreak musikaz bete zituen Urmugak

Urmuga egitasmoa Aizkorriara iritsi zen uztailaren 19an. Mendizaleek Arantzazu eta Aizkorri arteko bidea egin zuten, eta arratsaldean Urbian eskainitako kontzertu paregabeaz gozatu zuten. Parte hartu zuten mendizaleez gain, beste asko izan ziren kontzertua ikustera igo zirenak. Guztira, 100 lagunetik gora batu ziren.



ARETXABALETAKO

Parapentean hegan Aretxabaletako parajeetan zehar

Euskal Herriko III. Oinez eta Hegan Txapelketa jokatu zuten uztailaren 18an Aretxabaletan. Euskal Aire Kirol Federazioak eta Debagoieneko Amillena taldeak antolatutako txapelketan, Gorka Tornos soraluzetarra izan zen nagusi. Haren atzetik sartu ziren Enaitz Eizagirre eta Jon Iriarte *Takolo* arrasatearra.

ALDEDI

Urte berri on!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

ARETXABALETA

Sentsibilizazioa ostalaritza sektorean

Ostalaritzarako sentsibilizazio kanpaina egin zuten hilaren 17an Aretxabaletan. Asmoa herritarren artean pandemia eteteko neurri egokiak sustatzea zen, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen eskutik.

ANTZUOLA

Azken agurra Balentin Aperribairi

Abuztuaren 21ean hil zen, 85 urte zituela, Balentin Aperribai Antzuolako pandero jotzaile irakasle izandakoa. Plazan egin zioten omenaldia, eta kuxaren gainean pandero bat utzi zuten ikasle izandakoei.

DEBAGOIENA

Legebiltzarraren XII. legegintzaldia

Abuztuaren 3an abiatu zuten hamabigarren legegintzaldia, sei debagoiendarrekin: EH Bildutik Lore Martinez, Ander Rodriguez eta Rebeka Ubera, EAJtik Aitor Urrutia eta Luis Javier Telleria eta Alberto Alonso sozialista.

ESKORIATZA

Iker Eskibel Txirrindularia

Iker Eskibel eskoriatzarrak, abuztuaren 4an, Galtzagorri Euskal Openeko lasterketa irabazi zuen. Sailkapen orokorrean lehen postuan, Euskal Herriko txapelduna izan zen.



BERGARA

Usondo parkeko kontzertuak, arrakastatsuak

Begarako udako kultura eskaintzaren baitan, abuztuaren 8an eskaini zuen Lemak talde bergararrak kontzertua Usondo parkean. Haiekin batera aritu zen Bulego talde azkoitiarra ere. Hilaren 27an, Indai talde bergarra aritu zen taula gainean, talde ezberdinen bertsioak jota. Herritar asko gerturatu ziren kontzertuetara.



BERGARA

Reyes Azkoitia eta Arrate Bergara protagonista

Abuztuaren 27an jokatu zen pilotako finala, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, eta Reyes Azkoitia bergararraren esanetara jardun zuen taldeak irabazi zuen Laboral Kutxa Udako Torneoaren lehen edizioa. Bertan lehiatu zen Arrate Bergara pilotari bergarra ere, talde aurkarian, eta, horrenbestez, txapeldunorde geratu zen.



ARETXABALETA**UDAK entrenamenduak hasi zituen**

Gipuzkoa mailako futbol txapelketak noiz hasiko ziren jakin barik, jokalaria martxan ipintzea erabaki zuten aretxabaletarrek. Segurtasun eta distantzia neurriak zorrotz betetzeko protokoloa egin zuten klubean.

ELGETA**Joseba Muxika Sarasketa hil zen**

Abuztuaren 16an zendu zen, Jaca (Huesca) inguruan bizikletan zebilela, bihotzekoak jota. 47 urteko elgetarra Gipuzkoako Foru Aldundiko Herri Partaidetzako zuzendaria izan zen azken bost urteetan.

ARETXABALETA**Horma-irudi koloretsuak Portasolen**

Jai-batzordearen ekimenez, bost grafiti-egilek margotu zituzten auzoko pareta batzuk. Auzoarekin zerikusia zuten elementuak erabili zituzten paretok apaintzeko.

ARETXABALETA**Istripua, familia bereko lau kidek**

Eskoriatzako familia bereko lau kide zauritu ziren abuztuaren 2an, furgoneta Deba ibaira erori ondoren. Soraluzen gertatu zen. Mendaroko ospitalera eraman zituzten pronostiko erreserbatuko zauriekin.

KORONABIRUSA**ARETXABALETA****Ekitaldi ofizial bakarria aurtengo ez-jaietan**

Herritar ugari gerturatu ziren abuztuaren 15ean Herriko Plazara Milagroko bandaren emanaldiaz goatzera, osasun babes neurri zorrotzekin egin zuten emanaldira. Aretxabaleako Gazte Mugimenduak ere jai herrikoia aldarrikatzeko manifestazioa egin zuen, ospatu ez ziren andramaixak gogoan izanda.

OÑATI**Pandemiaren kezken aurrean bat egin zuten herritarrek**

Egiaren Aldeko Hezitzaileak ekimenak mundu mailan jarduten du, eta, Euskal Herrian abiatu duen lantaldearen baitan, abuztuaren 13an izan ziren Oñatin. Pandemiak eragindako kezka eta zalantzen aurrean hainbat herritarrek bat egin zuten, irtenbideak eta aukerak aztertze-ko talde askotan antolatuta.

**DEBAGOIENA****185****lagun kutsatu ziren abuztuan**

Abuztuko datuek 185 COVID-19 kasu berri utzi zituzten bailaran. Egunez egun aztertuta, abuztuaren 25ean atzeman zen positibo kopururik altuena, 19 guztira. Hilaren 27an, berriz, 17 positibo baieztatu ziren. Abuztu bukarako 778koa zen Debagoieneko herrietako kasu positibo metatuen datua.

BERGARA**Saihesbidetik San Martzial bidera erori zen auto bat**

Ekaitzak gogor jo zuen hilaren 12an, eta Bergarako saihesbidetik, 5-6 metroko altueratik, erori zen auto bat, maldan behera belardian barrena, San Martzial bidera, Aspace parera. Gidaria zauri arinekin eroan zuten Debagoieneko Ospitalera. Beste inork ez zuen minik hartu, baina zenbait auto kaltetu ziren.

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Urte herri on!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

ARRASATE

Gudarien Egun jendetsua ospatu zuten

Irailaren 27an ospatu zuten Gudarien Eguna Arrasaten, eta 100 bat lagun bildu ziren. Hainbat ideia azpimarratu zituzten: "Inoiz baino beharrezkoagoa da geure buruaren jabe bilakatzea".

OÑATI

Aitor Urzelai SPRIko zuzendari

Oñatiarra izendatu zuten SPRIko zuzendari nagusi. Industria Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea da SPRI, Eusko Jaurlaritzak 1981ean sortu zuen agentzia.



ANTZUOLA

Kutxabank-en ordutegia salatu zuten

Kutxabanki zerbitzua ez murrizteko eskatuko zioten antzuolarrek. Landatxoepko erretiratuek herriko banketxeko arduradunari gutuna bidali zioten, arreta zerbitzua murriztu izana salatuz.

ARRASATE

Eneko Carrascal Atleta

Arrasatearrak bi domina ekarri zituen Sevillan jokaturiko Espainiako Txapelketatik. Zilarra eskuratu zuen jauzi hirukoitzean; eta luzera-jauzian, berri, urrezko domina irabazi zuen.



BERGARA

Euskaraldiko ekitaldia egin zuten Bergaran

Irailaren 24an, Bergarako Seminarixoa egin zuten Euskaraldia-ren bigarren edizioan izena emateko Euskal Herri mailako irekiera ekitaldia. Egitasmoko arduradunek, antolatzaileek zein entitateetako ordezkariak hartu zuten parte eta ariketa sozialerako espresuki prestatutako bideoklipa ere aurkeztu zuten Bergaran.

 KORONABIRUSA


ESKORIATZA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate berria

Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko Eskoriatza-ko Dorletako eraikin berria inauguratu zuten irailaren 18an, eta unibertsitateko ikasturte hasiera ekitaldia ere egin zuten bertan. Han izan ziren Iñigo Urkullu lehendakaria, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua, Bixente Atxa MUKo errektorea....



DEBAGOIENA

1.000**positibo kasuen langa gainditu**

Irailan 1.000 kasu positiboren langa gainditu zuen Debagoienak eta lehenengo COVID-19 kasu positiboa atzeman zuten Leintz Gatzagan. Irailaren 4an, esaterako, 800 kasu zeuden bailaran, eta irailaren 21erako 1.039 ziren. Irail osoan, 403 lagun kutsatu ziren Debagoiengan, gehienak Arreasaten eta Bergaran.

DEBAGOIENA

Ikasturteari ekin zioten ikasleek, ezohiko egoeran

Irailaren 7an ekin zioten ikasturteari Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eta DBHko lehen eta bigarren mailakoek. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek, batxilergokoek eta Lanbide Heziketakoak, berriz, irailaren 14an hasi zituzten eskolak. Guztiak ere, segurtasun neurri bereziekin.

**BEHI-ALDE****ERKOP**

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

urte berri on!

Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com

ELGETA
Cainzosek liburua aurkeztu zuen
Elgetarrak historian liburua aurkeztu zuen Manolo Cainzosek, eta Elgetan jaiotako 26 lagunen bizipenak jaso zituen idatzi hartan. "Kontaketa laburrak dira eta askotariko protagonistak jasotzen ditu liburuak".


DEBAGOIENA
Monika Belastegi Kazetaria
Goiena Komunikazio Taldearen urteko batzar orokorrean, presidente aldaketa onartu zuten. Hala, Monika Belastegi izendatu zuten presidente, Aitor Izagirreren lekukoa hartuta.

ARRASATE
Lore eskaintza egin zuten Arrasaten
"Altxamendu militararen ondorioz eta diktaduran errepresio frankista jasan zuten pertsona guztiak" gogoratu zituzten Arizmendiarrieta plazan egindako ekitaldian, eta liburua ere aurkeztu zuten.

ESKORIATZA ETA ARRASATE
Oihana Arana eta Ane Zuazubiskar Bertsolariak
Bertsolari Gazteen Lizardi Sarian, Ane Zuazubiskarrek lehen saria irabazi zuen eta Oihana Arana eskoriatzarrak, bigarrena.



OÑATI
Zuazola Institutuko irakasle bat hil zen, auto istripuan
Auto batek eta kamioi batek talka egin zuten Garibai auzoan, GI-2630 errepidean, Bikoitz ja-tetxearen eta Arriagakoa base-riaren artean, eta Zuazola In-stitutuko irakasle batek bizia galdu zuen. 49 urteko emakume eibartarra zen. Gero, institutu-ko ikasle zein irakasleek ome-naldi hunkigarria egin zioten.



BERGARA ETA ARRASATE
'Akelarre' filma estreinatu zuten Zinemaldian
Donostia Zinemaldian estreinatu zuten *Akelarre* filma. Bi aktore debagoiendarrek hartu dute parte film horretan, Yune Nogueiras bergararrak eta Lorea Ibarra arrasatearrak. Asier Altuna – *Arzak since 1897*–, Mikel Laskurain eta Jon Olivares – *Patria*–, eta Yon Gonzalez –*Hil kanpaiak*– ere izan ziren protagonista Zinemaldian.



DEBAGOIENA
Janari bilketa egin zuten, Lesboserako
Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak janari bilketa egin zuen Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan, Lesbosera eroateko. Arrasaten eta Aretxabaletan boluntarioak supermerkatuen ata-rietan egon ziren eta Antzuolan, berriz, Anelkarrek eta herriko boluntario talde batek ia 750 kilo batu zituzten.

ARRASATE
Gure Zirkuk arrakasta handia izan zuen Arrasaten
Irailaren 25ean etorri zen Gure Zirkua Arrasatera, eta hainbat emanaldi egin zituen, azaroaren 1era arte. Sarrera guztiak sal-duta, "harrera bikaina" izan zuen eta haur, gazte zein heldu bertaratu ziren. Bestalde, zirkua barrutik ezagutu ahal izan zuen GOIENAK (Ikusi *Gure Zirkuaren azpiko gonak* erreportajea).



ARRASATE
'Érase una vez... Euskadi' pelikula grabatzen hasi ziren
Manu Gomez zinegile arrasa-tearrak jaioterrian ekin zion bere lehen pelikularen graba-ketari, eta Elgetan ere grabatu zituzten zati batzuk. Pelikulak 12 urteko lau lagunen pasarteak kontatuko ditu, 80ko hamarka-dako testuingurua oinarri har-tuta. Guztira, 100 langile inguru aritu dira filmatze lanetan.



OÑATI

Agur omenaldia hildako irakasleari

Agur omenaldia eskaini zioten Zuazola-Larraña Institutuko irakasleek eta ikasleek Oñatiko Garibai auzoko Bikoitz jatetxe parean izandako auto istripuan hil zen Ana Atxotegi irakasle eibartarrari.

OÑATI

Pintadak egin ziren udaltzainen aurka

Oñatiko San Migel eta Errosaio jaiei testuinguruan egin ziren "Zuek ere txakurrak zarete" zioten pintaketak. Bi tokitan egin zituzten udaltzainen eraikinean: sarreran bat eta garajeko atean beste bat.

ARETXABALETA

Kepa Errasti aktorea

Euskal Aktoreen Batasunak Besarkada sarien baitan saritu zuen aktore aretxabaletarra. Antzerkiari bideratutako saria eskuratu zuen Errastik, Mami Lebrun obran egindako lanagatik.

ARRASATE

Nagore Ipiña HUHEZIKO dekanoa

Nagore Ipiña izendatu zuten Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza eta Humanitate Zientzien fakultateko dekanoa, Begoña Pedrosa ordezkatzuz.



DEBAGOIENA

Espainiako Lan Ministroa Debagoiengan

Yolanda Diaz Espainiako Lan Ministroak Euskal Autonomia Erki-degora egindako bisita ofizialak Debagoiengan egin zuen geldialdia. Arrazoa, Mondragon Taldearen eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarlan bideetan sakontzea. Copreci kooperatiba ezagutu zuen eta Otalaran ere izan zen; baita Mondragun Unibertsitatean ere.

ARRASATE

San Josepeko baserri batek su hartu zuen, baina zauriturik ez

San Josepeko (San Andres) lau etxebizitza dituen baserria erabat kiskali zen. Eraikinean bizi ziren lau familiak etxebizitzetatik irteten ahal izan ziren eta ez zen bestelako ezbeharrik izan. Sutea arratsaldeko 14:45 inguruan piztu zen eta hark sortutako kea Arrasateko hainbat tokitatik ikus ahal izan zen.



ARRASATE

Kepa Arkauz atxilotu eta aske utzi zuten gero

Kepa Arkauz euskal preso ohi arrasatearra atxilotu dute Gasteizen, lanean ari zela. Ekhiñe Eizagirre preso ohia eta Imanol Jaio ere atxilotu zituzten operazio berean, "ETAren arma biltegi baten arduradun izatea" egotzita. Epailearen aurretik pasa ostean aske utzi zituzten hirurak, karguekin.

ARRASATE

Oroimen eta aitortza ekitaldia, erail eta 45 urtetara


1975eko urrian erail zituzten Iñaki Etxabe Orobengoa eta German Agirre Irasuegui omen-du zituen Arrasateko Udaleko Bizikidetzak Batzordeak. Udalak, "biktima guztiei dagozkien eskubideak, gertatutakoaren egia izatea, justizia eta erakundeen aitortza" berretsi zizkien familiei ekitaldi hartan.



DEBAGOIENA

Haize zakarrak kalte ugari eragin zituen Debagoiengan

Alarma laranja iragarrita zegoen haize zakarragatik eta halaxe izan zen. Zuhaitzak eta adar asko lurrean, bidegorri eta errepideak itxita, autoak iraulita... Haizeak 94,5 kilometro orduko abiadura hartu zuen eta horrekin lotutako 526 inzidentzia kudeatu behar izan zituzten Gipuzkoan.



Elena Elkorok 2021. urterako hoberena opa dizue elgetar guztioi!

Urte berri on!

ARETXABALETA

Jose Mari Armentia

Aretxabaletarra Funtzio Publikoko sailburuorde izendatu zuten. Eusko Jaurilaritzako Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailaren baitan jardungo du lanean.



DEBAGOIENA

Presoen alde elkartu ziren plazetan

Herrietako plazetan elkartu ziren Izan Bidea ekimenak deituta, presoen eskubideen alde. Elkartutakoek aldarrikatu zuten presoen eta iheslarien auzia behin betiko konpontzeko urratsak emateko garaia dela.

DEBAGOIENA

Itaia taldea aurkeztu zuten Bergaran

Urrian egin zuten Debagoiena eta Debabarrenako Itaia emakume sozialisten sarearen aurkezpena. "Emakume langileen problematikari panorama politikoan lekua egitea" da euren helburua.

ESKORIATZA

Elizateen zinegotzi Kerexeta hil zen

Iñaki Kerexeta Eskoriatzako Elizateen Elkarteko (EEE) bozeramailea hil zen bihotzekoak emanda. Aurreko agintaldian zein oraingoan, Elizateen Elkarteko zinegotzi izan zen Eskoriatzako udalean.



DEBAGOIENA

D2030 ekimena aurkeztu zuten 13 eragilek

2050erako Debagoiena eskualde adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izatea ahalbidetuko duen lankidetzaren sare irekia aurkeztu zuten Euskal Herriko hamahiru erakundek. Ekimena osatzen duten eragileek etorkizuneko erronkei "erantzun bateratua" emateko konpromisoa erakutsi zuten ekitaldian.

**KORONABIRUSA**

DEBAGOIENA

Baheketa masiboa egin zuten Bergaran

Bergaran, egoera kezkatzeko modukoa zela-eta, baheketa masiboa egiteko dei egin zuen Osakidetzak. Era berean, etxeratze agindua, herritik ezin irtetea eta ostalaritzaren itxiera ekarri zuten neurri murriztaile berriek. Horien kontra protestak egin zituzten, eta kale istiluak ere izan ziren hainbat herritan.

ARRASATE

Hainbat edukiontzi erre zituzten Arrasaten

Karguekin baina aske geratu ziren ustez hainbat edukiontzi erretzeagatik atxilotu zituzten 21, 26 eta 29 urteko hiru gazteak. Zenbaitek, esaterako Sare Antifaxistak, istiluak negazionistekin eta eskuin muturreko taldeekin lotura dutela salatu arren, Ertzaintzatik ez zuten halakorik baieztatu.



ANTZUOLA

Udal artxiboa berritua aurkeztu zuten Antzuolan

Antzuolako udalak herriko ondareari balioa ematearen aldeko apustua egin eta udal artxiboaren zati bat berrantolatu, deskribatu eta katalogatu zuen Lourdes Odriozola historialariak; bide hori jarraituz, artxiboaren bigarren zatia antolatzen jarraitzeko asmoa duela ere azaldu zuen Udalak.



DEBAGOIENA

871**Positibo berri**

Covid-19aren izurriak sortutako bigarren olatuak indartsu kolpatu gintuen urrian. Egutetik egunera positibo berri gehiago azaltzen ziren gure herrietan eta poliki poliki, inzidentzia datua azaroan gainditu zen datuetara gerturatzen zebilen. Egoera ikusik, Jaurilaritzak neurri murriztaileak indarrean ipini zituen.

- Ibargarai 24
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:
San Lorentzo pol. 9
Amillaga 18
Tel.: 943 76 99 34
BERGARA

Ongi etorri 2021

OÑATI

Beratu musika jaialdia egin zuten

Azaroaren 6tik 8ra bitarte egin zuten Beratu musika jaialdia, Oñatin. Kontzertu ugari eskaini zituzten egun haietan, eta musikari, ikusle zein antolatzaileek jaialdiaren balorazio "positiboa" egin zuten.

ANTZUOLA

Alardeari buruzko lana kaleratu zuten

Antzuolako Alardea. Ikerketa historikoa izeneko liburua aurkeztu zuten azaroaren 5ean. Udalak eta Alardearen Elkarateak elkarlanean egindakoa izan zen, eta Lourdes Odriozola aritu zen lan horretan.

BERGARA

Bergara ezkertiarren dokumentala

Azaroaren 13an aurkeztu zuen Ahaztu Barik taldeak *Egia bat. Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia* dokumentala. II. Errepublikatik ETAre desagertzera arteko historia kontatzen du.

ARAMAIO

Idoia Asurmendi Musikaria

Bilboko Iberdrola dorreko heliportuan grabatutako kontzertua eskaini zuten azaroaren 28an, online. Sarreraren dirua musika eskolari eta Papargorri abesbatzari oparitu zion.



DEBAGOIENA

Indarkeria matxista gaitzetsi zuten

Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, kalera irten ziren Debagoieneko herri guztietan. Elkarretaratzeak, manifestazioak eta askotariko ekitaldiak nagusi izan ziren indarkeria matxista gaitzesteko; eta *Normaltasun berria desnormalizatzea gatz* eta halako leloak irakur zitezkeen.



OÑATI

Arropak generorik ez duela erakutsi zuten

Azaroaren 10ean, Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko neska-mutiko asko gona jantzita joan ziren eskolara, 15 urteko Bilboko mutil bati gauza bera egiteagatik gertatu zitzaiona salatu eta arropak generorik ez duela aldarrikatzeko. Gona jantzita eramateagatik eskolako psikologoarenean amaitu zuen mutil hark.

ARRASATE

Aske utzi zuten Josu Arkauz euskal preso arrasatearra

Azaroaren 23an atera zen Valladolideko espetxetik Josu Arkauz euskal preso arrasatearra. 1991n atxilotu zutenetik, 29 urte, zortzi hilabete eta lau egun eman zituen preso, hamalau espetxe ezberdinetan. Espetxe politika eta "biziarteko zigorrak" salatzeko, ekitaldia egin zuten azaroko arratsalde hartan.



DEBAGOIENA

Ekintza ugari egin zituzten, izan Bidea ekimenaren baitan

Izan Bidea ekimenaren baitan, ekimen ugari egin zituzten bailarako herrietan. Arrasaten, hitzaldia, ibilaldia eta manifestazioa egin zituzten, presoen eta iheslarien etxeratze prozesua martxan jarri, elkarbizitzan bizi den jendarte baten eraikuntzan aurrera egin eta bakearen aldeko urratsak egitea helburu.



zorionak
eta
urte berri on

SINCE
1942

www.ibilimenaje.com

DEBAGOIENA

Kalitatezko zaintza sistema eske

Azaroaren 17an, *Zaintza publikoa bizitzarako* lelopean, greba egin zuten zaintza sektoreko zenbait langilek. Kalitatezko zaintza sistema publikoa eskatu zuten egindako elkarretaratzean.

OÑATI

Miren Josune Bikuña Kirolaria

Sorian egin zuten duatloiko Espainiako lasterketan lehena izan zen Miren Josune Bikuña oñatiarra, eta bigarren izan zen sailkapen orokorrean. "Emitza bikaina" lortu zuela aitortu zuen.



ARRASATE

'Ekobulebar'-eko lanak hasi zituzten

Azaroaren azken egunetan hasi zituzten *Ekobulebar*-a egiteko lanak. Horrekiko proiektu alternatiboa aurkeztu zuen EH Bilduk azken astean, "oinezkoek espazioa eta protagonismoa berreskuratzeko".

BERGARA

Mireia Gabilondo

Aktore eta zuzendaria

Mireia Gabilondok zuzendutako *Erlauntza* filma –Kepa Errastik idatzitako izen bereko (2018) antzerki-lanean oinarrituta– estreinatu zuten azaroaren 6an.


 KORONABIRUSA


DEBAGOIENA

Ostalaritza kalera irten ziren protesta egitera

Ostalaritza bizitzan ari den egoera "larria" lehen lerrora ekartzeko eta laguntza behar dutela aldarrikatzeko, mobilizazio jendetsuak egin zituzten ostalariek, Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan. Ostalaritza eta egoera zaurgarrian dauden gainerako sektoreak babesteko ekitaldi jendetsua egin zuten Oñatiko kaleetan barrena.



ARRASATE

Sahararren autodeterminazioa eskatu zuten

Saharaldeba elkarteak deituta, saharar kolektiboak elkarretaratzea egin zuen azaroaren 14an, Arrasateko Arizmendiarrrieta plazan. Jatorri askotariko dozenaka pertsonak "herrialde sahararraren autodeterminazio eskubideari" sostengua eman eta "marokoar armadaren azken ofentsiba" gaitzetsi zuten bertan.



DEBAGOIENA

Baheketa masiboak egin zituzten bailarako bi herritan

Lehenbizi, Arrasaten egin zuten baheketa, azaroaren 18tik 20ra bitartean. 3.256 lagunek hartu zuten parte, eta 71 positibo baieztatu zituzten. Azaroaren 26rako eta 27rako, berriz, aretxabale-tarrak, eskoriatzarrak eta leintz gatzagarriak deitu zituzten PCRak egitera. 1.652 proba egin zituzten, eta zortzi positibo baieztatu.



DEBAGOIENA

1.707

kutsatu berri

Azaroan 1.707 koronabirus kasu positibo baieztatu zituzten Debagoiengan; urriarekin alderatuta, ia bikoitza –863 izan ziren–. Hura izan zen pandemia hasi zenetik datu okerrenak erregistratu zituen hilabetea. 3.750 izan ziren, guztira, hilabete hartara arte bailaran izan ziren kutsatzeak.

ARRASATE

Hainbat edukiontzi erre zituzten herriko bost gunetan

Urriaren 31 gauean, 23:00 alde-ra, hainbat edukiontzi erre zituzten herriko bost gun ezeberdinetan. Hiru pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak gertakariekin lotuta. Hurrengo egunetan, epailearen aurretik pasa ostean, karguekin baina aske utzi zituzten 21, 26 eta 29 urteko hiru gazteak.

ELGETA

Kutxabank-ek banku zerbitzu hobe eman dezaten eskatu zuten

Kutxabankek banku zerbitzu hobe eman dezaten eskatu zuten Elgetako merkataria eta ostalariek. Aurrez aurreko arreta zerbitzua kendu izanak gauzak zaildu dituela adierazi zuten, eta aldizkako aurrez aurreko zerbitzua eta diru-sartzeak egitea ahalbidetzen duen kutxazain automatikoa jartzea eskatu zuten.



ILE ADAPAINDEGIA
Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA
ilea peluqueria/ileapaindegia

DEBAGOIENA

Egoitzetako langileen aldarrikapena

Gipuzkoako adindunen egoitzetako langileen lan-baldintzak hobetzea eskatzeko, greba izan zen. Arrasateko eta Bergarako udaletxeen aurrean bi egunean izan ziren mobilizazioak, abenduaren 11n eta 12an.

BERGARA

Bikain Euskarazko Ziurtagiria

Euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-mailan egindako lanagatik, Urrezko Bikain Euskarazko Ziurtagiria jaso zuen Bergarako Udalak.

OÑATI

Migratzaileen Nazioarteko Eguna

Migratzaileen Nazioarteko Egunean, ekintza ugari izan zituzten Oñatin. Plaza aldarriz, aniztasunez eta ekintzaz bete zuten askotariko jatorrietatik Oñatira etorritako lagunek eta Herri Mugimenduko eragileek.

DEBAGOIENA

Pentsiodunak, Toledoko Itunaren aurka

Abenduaren 5ean, Debagoieneko hainbat herritan, Toledoko Itunaren murrizketen aurka egin zuten manifestazioa pentsiodunek, segurtasun neurri guztiak errespetatuta.



DEBAGOIENA

Euskaraldiaren bigarren edizioa amaitu zen

Abenduaren 4an, bigarren Euskaraldia ixteko ekitaldiak izan ziren herririk herri. Arrasaten, esaterako, Kulturaten, Euskaraldiak emandakoaren errepaso egin zuten, euskarak bizirik mantentzeak duen garrantziaz ere aritu ziren, eta aurrerantzean euskaraz aritzeko ohiturei "eutsi" behar zaiela azpimarratu zuten.

OÑATI

Euskaraz idatzitako lehen poemaren aurkikuntza

Oñatin dagoen Gipuzkoako Pro-bintziako Artxibo Historikoan euskaraz idatzitako maitasunezko bi olerki aurkitu zituztela jakinarazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. XVI. mendekoak direla zehaztuta, euskal literaturako idatzizko lehen poema dela adierazi zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.



BERGARA

Gipuzkoako Futbol Federazio presidente berria, Manu Diaz

Manu Diaz bergararraren Garai berriak plataformak irabazi zituen Gipuzkoako Futbol Federazioako hauteskundeak, abenduaren 14an, eta presidente izendatu zuten. Hori horrela, Garai berriak plataforma hori arduratuko da datozen lau urteetan Gipuzkoako Futbol Federazioa zuzentzeaz.

DEBAGOIENA

Hainbat liburu aurkeztu zituzten bailaran

Mondra, una temporada y tres futbolistas; Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen historia soziala; Abizenak, leinuak eta oinetxeak; argazkiko Alanbrehotsa eta jazbana, Iñigo Biainena; eta Displasia Fibrosa elkarrearen Mateo izeneko opari bat -Nerea Arrieta, argazkian-. Uzta oparoa izan da abendukoa.



autopullmans

Araba



Urte berri on!



Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

LEINTZ GATZAGA

Mendi Aste jendetsua

Hiru eguneko egitaraua antolatu zuten. Horietako batean, Alex Txikon alpinista izan zen, Nanga Parbatera neguan egindako igoerako bizipenak kontatzen. San Millan parroikia bete egin zen.

DEBAGOIENA

Aintzane Oiarbideren bisita

Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Bide Azpiegiturako diputatua Aretxabaletako Basabe biribilguneko eta Leintz Gatzagako autobus geltoki berriko lanak bisitatzen izan zen.

BERGARA

Agorrosin Berrirako hitzarmen berria

Bergarako Agorrosin Berrira begirako beste hitzarmen bat adostu zuten abenduaren 16an. Pandemiara egokitutako akordioa Bergarako Udalak eta Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak sinatu zuten.

ARRASATE

Santamas feriarik ez

2020ko santamas eguneko ekintzak bertan behera geratu arren, ekitaldi batzuk antolatu zituzten herriko hainbat eragilek eta Udalak elkarlanean. Biteri plazako karpan egin zituzten gehienak.



DEBAGOIENA

Baltistan saritu zuten Mendi Film jaialdian

Baltistan Fundazioak jaso zuen 2020ko WOP-The Walk On Project Saria BBK Mendi Film Bizkaia mendiko jaialdian. Saria Pedro Ibarra presidenteak eta Alberto Iñurrategi fundazioko sortzaileak jaso zuten. Horrez gain, Iñaki Peñak eta Artemanek landutako *Mendian hil, hirian hil* dokumentalak ere saria jaso zuen.

 KORONABIRUSA


DEBAGOIENA

671**kutsatu berri**

Abenduaren 21era arte bitartean, 671 koronabirus kasu positibo baieztatu zituzten abenduan Debagoienean. Azaroko kasuekin alderatuta, datuek hobera egin zuten, proportzioan. Hala ere, azpimarratzekoa da abenduaren 21eko datua: urriaren 8a ezkerro ez zen hain zenbateko txikia erregistratzen.

ARRASATE

Arrasateko Ostalariak Taldea sortu zuten

Herriko 75 lokalek eta 300 langilek osatutako Arrasateko Ostalariak Taldea sortu zuten. Ostalarien eguneroko beharrak defendatzeko, administrazioarekin elkarlana ziurtatzeko eta herriko talde, komertzio, kultur, kirol eta elkarteekin kolaboratzeko lan egiteko helburuarekin sortu zen. Udalak, laguntza zuzenak iragarri zituen.



DEBAGOIENA

Jostailu bilketa, behartsuenei Gabonetan oparitzeko

Jostailu bilketa egin zuen Debagoieneko Gurutze Gorriak, egoera zaurgarrian dauden balarako haurrei Gabonetan oparitzeko. Elorregiko egoitzan banatu zituzten jostailuak, eta, aurtengo eskaerak %40ko igoera izan arren, guztira 278 haurri jostailuak banatu zizkietela adierazi zuten boluntarioek.

DEBAGOIENA

'Bateragune auzia' berriro egitearen aurka protestan

Abenduaren 19an, zapatua, *Demokrazia* lelopean, elkarretaratzeko egin zituzten Euskal Herriko zenbait herritan, *Bateragune auzia* berriz egiteko erabakia salatuz; baita Debagoieneko herrietan ere. Eskuineko argazkian, esaterako, Antzuolako bilkuran batutakoak ageri dira.



ARRASATE ETA ARAMAIO

Baheketa masiboa egin zuten Arrasaten eta Aramaion

Debagoieneko Ospitaletik baheketa masiboa egitera deitu zituzten Arrasate eta Aramaio 6 urtetik gorako herritarrek –24.000 lagun inguru–, kutsatze tasa altuagatik –EAEko altuena–. Bertakoak ez izan arren Arrasaten ikasten duten 5.500 ikasle ingururi ere PCR azterketak egin zizkieten.



ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

RPS: 227/18



Uste herri on!

Nagore Ipiña

Hezkuntza fakultateko buru

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanu izendatu zuten urrian, 2014a ezkerokarguan zeraman Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburu izendatu zutenean. Nagore Ipiña (Arrasate, 1983) Hezkuntzan doktorea eta, besteak beste, KoLaborategiko zuzendaria eta Fakultateko Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria izan da. Hamaika urte daroatza fakultatean.

Olatz Etxabe, beste aurpegieta bat

Olatz Etxabe Arrasateko Iturbide egoitzako zuzendaria da beste aurpegieta bat. Batik bat, udaberrian, pandemiak gogorren jo duenean, lehen lerroan aritu da. Beste arrazoi batetatik ere izan da protagonista, bere familiarekin: Iñaki Etxabe aita erail zutela 45 urte bete dira, eta Arrasateko Udalaren aitortza jaso du, urte berean erail zuten taxilari German Agirre zenaren familiarekin batera.



Aitor Urzelai

Euskal industriaren aurpegia

Euskal industria bultzatzea helburu duen Spri Taldeko zuzendari izendatu zuten irailean Aitor Urzelai 45 urteko oñatiarra. Eusko Jaurlaritzako Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazio Gizarteko zuzendaria izan ostean, 2013a ezkerok. Doktorea da Ekonomia eta Enpresa Zuzendaritzan, eta lizentziatua Enpresa Zientzietan, Marketin espezialitatean. Aurretik, Mondragon Innovation & Knowledge (MIK) berrikuntza eta ikerkuntza kooperatibako zuzendari izan zen, 2009tik 2012ra.

Maskarak, negozio aukera

Maskara kirurgikoak egiten dituen Wolfratex enpresa ere nabarmendu da COVID-19ak baldintzatutako urte berezian. Iker Elizburu 23 urteko bergararra da udaberrian sortu eta Bergarako Larramendi industrialdean kokatutako enpresako gerentea. Mondragon Assemblyk Txinan duen lantegian ere maskarak egiteko makinak ekoitzi ditu, Mikel Gantxegi bergararraren aginduetara.



Arrasateko harrobi oparotik irtendako Real Sociadako harribitxietako bat da mondragoetarra. Aurten, Espainiako txapelkun geratu da luzera-saltoan, 23 urtez azpikoetan, 7,68 metroko markarekin, Sevillan, irailean. Bestetik, Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe atleta mondragoetarrak bigarren eta hirugarren izan ziren otsailean pista estaliko Espainiako txapelketan, pertika-jauzian. Irailean, aire librean, postua berdindu zuen Ruiz de Azuak eta bosgarren geratu zen Axpe.

Gipuzkoako futbola, Debagoienetik
Bestalde, Manu Diazen (Bergara, 1965) urtea izan da 2020 hau: Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente aukeratu dute abenduan, Juan Luis Larreari lekukoa hartuz, azken honek karguan 33 urte egin ostean. Garai Berriak plataformarekin, Adrian Merino aretxabaletarra buru zuen hautagaitzari gailendu zaio.



Eneko Carrascal

Atletismoan, gorenean



Idoia Asurmendi

Aramaiotik zerura

Musikari aramaioar gaztea nabarmendu egin da 2020 zail honetan. Abenduan, Euskalduna jauregian *Gora bihotzak! Fair Saturday* emanaldian protagonista izan da, beste hainbat musikarirekin batera –Aiora Renteria, Eñaut Elorrieta, Izaro Andres eta Pello Reparaz–, Fernando Velazquezek zuzendutako ikuskizunean. Azaroan, Iberdrola dorreko heliportutik aritu zen zuzenean. Udan, Donostiako Aste Nagusian eta Jazzaldian jo behar zuen, Kutxa Kulturaren *Ilun ta abar* egitasmoaren baitan, baina pandemiak galarazi egin zuen.

Gabilondo, Errasti, Altuna, Laskurain, Olivares...

Mireia Gabilondo eta Kepa Errasti aktore, gidoigile eta zuzendarien urtea ere izan da. *Erlauntza* zinemara eroanda. Baita beste bergarar hauena ere: Asier Altuna zine zuzendaria, Txemi Etxeberria musikaria eta Mikel Laskurain, Jon Olivares eta Yon Gonzalez aktoreak.

GOIZPERREK
GABON ZORIOITSUAK
OPA DIZKIZUE GUZTIOI
URTE BERRI ON!
2021

Goizper Group
Elkarlanean garatzen
Ihizfadura • Industrial • Bioteknologia

ARDURAZ JOKATU, zaindu zu eta ingurukoak!

Maialen Santos ARRASATE

Abenduaren 21era arteko datuen arabera, COVID-19ak 104 hildako utzi ditu Debagoienean. Bestalde, kutsatutakoak abenduaren 21era arte 4.400 baino gehiago izan dira.

Otsailaren 28a, mugarri

Otsailaren 28an iritsi zen koronabirusa Debagoienera; Aretxabaletako neska gazte bat izan zen Gipuzkoako lehen kasua. Gerora, Osasun Sailak aditzera eman zuen EAEko lehen kasua ere izan zela, Arabako beste pertsona batekin batera.


Martxoaren 3rako, hamahiru ziren EAEko kutsatutako kasuak, eta hurrengo egunetan nabarmen igotzen hasi ziren positibo berriak, martxoaren 11n EAEko 261 kutsatu eta 102 pertsona ospitaleratuta egotera. Hori horrela, Nekane Murga orduko Osasun sailburuak martxoaren 13tik aurrera Gipuzkoako eta Bizkaiko irakaskuntza jarduerak oro eteteko agindua eman zuen – Arabako irakaskuntza etenda zegoen ordurako –. Kirol eta kultur jarduerak ere bertan behera utzi zituzten. Eta udalak neurri bereziak hartzen hasi ziren.

Alarma egoera, hiru hilabetez

Martxoaren 14an, koronabirusari aurre egiteko ostalaritza jarduerak eta adinekoen egunezko zentroak ixtea agindu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak, eta hurrengo egunean neurri horiek gogortu egin zituen Pedro Sanchez Espainiako presidentek, herritar ororendako konfinamendua ezarrita. Martxoaren 15ean jarri ziren indarrean neurriak; hasiera batean, hamabost egunerako. Gerora, sei aldiz luzatu zuten larrialdi egoera, ekainaren 21era arte.

Koronabirusak 104 hildako utzi ditu Debagoienean aurten

Aretxabaletako neska gazte bat izan zen otsailaren 28an baieztatu zuten Gipuzkoako lehen kasua. Ordutik, 4.400 debagoiendar baino gehiago kutsatu ditu COVID-19ak; gehienak, Arrasaten. Adinekoen egoitzetan 43 hildako utzi ditu gaitzak, gutxienez



Arrasateko herritar bat, abenduan izandako baheketan proba egiten. GOIENA

Bien bitartean, elkartasun sare boluntarioak eratzen hasi ziren bailarako herrietan.

Lehen hildakoa, martxoan

Martxoaren 19an hasi zen Jaurilaritza herri bakoitzeko kutsatu kopuruaren berri ematen. 27 ziren bailaran birusa zutenak; horietako hamalau, Arrasatekoak. Egun berean, Debagoieneko Ospitalean ingresatuta zegoen 87 urteko emakume oñatiar bat koronabirusak jota hil zela baieztatu zion familiak GOIENARI.

Martxoaren 22an hasi ziren, hain zuzen, Debagoieneko Ospitaleko 4. solairua egokitzen birusak kutsatutako gaixoak artatzeko. Ordurako, hamabost lagun zeuden ingresatuta.

Adinekoen egoitzetan ere bai

Martxoaren 28an, bailarako adinekoen egoitzetako lehen egoiliarra hil zen, Arrasateko Iturbidekoa; ordura arte kutsatutako bakarra. Hiru egun geroago, bigarren adineko bat hil zen, egoitza berean.

Hilaren 30etik aurrera ezin bestekoak ez ziren lan jardueretako langileak etxean geratzeko agindu zuen Sanchezek. Hurrengo egunean, Murgak esan zuen EAEko kutsatuen kopuruan "hobekuntza" baieztatu zezaketela.

Martxo amaierarako, halere, 137 debagoiendar kutsatu zituen gaitzak: tartean, 147 arrasatear.

Apirilak 2 zituela erregistratu zuten Elgetako lehenengo kasua –Leintz Gatzagan kutsaturik barik jarraitzen zuten–. Hilaren 14an, lan jarduerarako pixkanakako itzulera hasi zuten EAEko, eta Josu Erkoreka Seguratasun sailburuak esan zuen "okerrena" pasata zegoela.

Apirilaren 9 eta 14 artean baieztatu zituzten GSR Debagoiena egoitzako lehen kutsatua eta Jose Aranako lehen biak. Hurrengo egunean, 300 kutsaturen langa gaingitu zen Debagoienean, eta, herriko, Arrasate zen herri kolpatuena, ia 200 kasurekin.

EAEko erietxetako egoerak hobera egin zuen hilabete hartan, eta apirilaren 27an ospitale garbi izendatu zuten Debagoieneko Ospitalea. Halere, hilabete hartan aurrekoan baino 105 positi-

bo gehiago baieztatu ziren bailaran; guztira, 242.

Konfinamendu arintzea

Konfinamendua arintzeko planari ekin zioten maiatzaren 4an –0 fasea–, eta egun hartan komertzioak ireki zituzten, mugekin. Hilaren 11n ekin zioten lehen faseari, eta tabernetako terrazak ireki zituzten, edukiera murriztuarekin. Hilabete hartan, osasun krisia hasi zenetik lehen aldiz behera egin zuten positiboak, eta 60 kasu berri hauteman zituzten.

Hurrengo hilabeteak ildo beretik jarraitu zuen; izan ere, ekain osoan hamabi izan ziren kutsatu berriak. Azpimarratzekoa da ekainaren 28ra arte berderatzi egunez kutsatu berririk ez zela egon.

Bien bitartean, maiatzaren 18 eta 22 artean, Arrasateko eta Eskoriatzako adinekoen egoitzetako kutsatu guztiak sendatu ziren, eta GSRk 20 kasu zituen. Uztailaren 3an, bailarako egoitza guztiak zeuden kutsatu barik.

Uztailan, agerraldia Bergaran

Uztailaren 17tik 19ra bitartean, hamazazpi positibo hauteman zituzten Bergaran, gazteen gaueko aisialdiarekin lotuta. Agerraldia eteteko neurriak hartu zituen Jaurilaritzak, ostalaritzari lotutakoak. Bestetik, udalekuak bertan behera uztea adostu zuten Jaurilaritzak eta Eudelek.

Oro har, maiatzeko eta ekaineko beherakadaren ostean positiboak gora egin zuten berriro uztailan, eta martxoaren pareko kutsatu kopurua utzi: 139. Abuztuan, gainera, goranzko joera hori berretsi egin zen eta 187 kasu berri izan ziren. Arrasatek jarraitzen zuen izaten bailarako herri kolpatuena, bai-



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitorpena

Urte berri on!




Errementari plaza 2-3 beheak, • OÑATI

Kasu positiboak Debagoienean

	MARTXOA	APRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	GUZTIRA
Arrasate	69	154	23	3	60	54	170	283	769	1.585
Bergara	18	27	9	1	33	54	108	245	436	931
Oñati	20	25	3	2	19	41	53	150	186	499
Aretxabaleta	21	26	9	6	12	21	46	47	129	317
Eskoriatza	7	6	2	0	11	11	11	37	95	180
Antzuola	2	2	5	0	1	2	9	82	38	141
Aramaio	2	0	3	0	0	1	4	9	38	57
Elgeta	0	2	6	0	3	3	1	10	15	40
Gatzaga	0	0	0	0	0	0	1	0	1	2
Debagoiena	137	242	60	12	139	187	403	863	1.707	3.750

ITURRIA: OSAKIDETZA



Hildakoak zaharren egoitzetan

EGOITZA	1. OLATUA	2. OLATUA
Arrasateko Iturbide	26	0
Aretxabaletako GSR Debagoiena	7	1
Bergarako Mizpirualde	0	8
Eskoriatzako Jose Arana	0	1
Oñatiko San Martin	0	0
GUZTIRA	43	

OHARRA: ABENDUAREN 21ERA ARTEKO DATUAK / ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

na Bergaran eta Oñatin asko hazi zen kutsatu kopurua; azken bi hilabeteetan izandako kasuak apiril bukaerara artekoak baino gehiago izan ziren herri horietan.

Sei hilabeteren ostean, eskolara Irailaren 7an itzuli ziren eskola presentzialetara ikasle gazteenak, eta aste bete geroago gainontzeko guztiak, Hezkuntza Sailaren irizpideak jarraituta.

Kasu berrien gorakada ikusita, irailaren 7an, gaitzak jotako gaixoak hartzen hasi ziren berriro Debagoieneko Ospitalean.

Irailaren 16an iritsi zen koronabirusa Bergarako Mizpirualde egoitzara, eta 20an, aldiz, Leintz Gatzagara. Egun berean, 1.000 kutsatuen langa gainditu zen Debagoienean. Nabarmen-tzekoa da horietatik 494 kasu Arrasaten izan zirela, eta atzetik zeuden Bergara eta Oñati: 192 eta 148 positibo metatuekin, hurrenez hurren. Bi herri horietan positiboan goranzko joera nabarmen hasi zen igartzen.

Antzuolan positibo ugari

Urriaren 8tik 21era bitartean, 49 kasu hauteman zituzten Antzuolan, eta ezusteko gorakada hark kezka sortu zuen herrian. Oñatin eta Bergaran ere goraka jarraitzen zuten positiboek, eta, hori horrela, urriaren 30eko asteburuan baheketa masiboa egin zuten Bergaran. 3.256k egin zuten PCR proba, eta 71 positibo baieztatu ziren. Debagoieneko ESIk adierazi zuen bailarako egoera "kezkarria" zela, eta azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia tasa 757,13koa zela bailaran. Zehazki, urrian zehar 863 kasu hauteman zituzten eskualdean, aurreko hileko bikoitza baino gehiago.

Azaroaren 2an, 2.000 kutsatuen langa gainditu zen bailaran. Eta Osasun Sailaren semaforoaren sisteman 5.000 biztanleko bailarako herri guztiak gorris ageri ziren egun hartan. Bi egun geroago azaldu zuen Gotzone Sagarai Osasun sailburuak egoera "kritikoa" zela EAEn, eta neurri murriztaileak iragarri zituen Urkulluk; tartean, ostalaritza-establezimenduen itxiera. Hurrengo egunetan, datuek okerrera egiten jarraitu zuten. Arrasaten 1.000 kutsatuen langa gainditu zuten eta Debagoienean, 3.000koa. Azaroaren zehar agerraldi ugari hauteman zituzten adinekoen egoitzetan: Jose Ara-

Hildako metatuak

ARRASATE	51
BERGARA	27
OÑATI	10
ARETXABALETA	10
ESKORIATZA	4
ANTZUOLA	1
ELGETA	1
ARAMAIO	0
GATZAGA	0
GUZTIRA	104

OHARRA: ABENDUAREN 21ERA ARTEKO DATUAK
ITURRIA: FORU ALDUNDIA

nan eta Iturbiden. Aita Menni ospitalean ere egon zen agerraldia, eta Mizpirualden, aldiz, gaixo guztiak sendatu ziren.

Azaroaren 18tik 20ra lehen baheketa egin zuten Arrasaten. 2.183 proba baliagarri egin zituzten eta hemezortzi kasu baieztatu ziren. Hilaren 22an, Leintz Gatzagako bigarren kasua zenbatu zuten, eta hilaren 26an eta 27an, baheketa egin zuten Aretxabaletan. Bertakoak ez ezik, eskoriatzarrak eta gatzagarrak ere deitu zituzten. 1.652 probetatik zortzik eman zuten positibo.

Gauzak horrela, azaroak 1.707 kutsatu utzi zituen eskualdean, eta hura izan zen ordura arteko pandemiako hilabete okerrrena. Azaroko azken astean, halere, bailarako positiboek apaltzera egin zuten. Abenduko lehen eta bigarren asteetan, ildo beretik jarraitu zuen egoerak, positiboek zertxobait behera eginda. Hala ere, Arrasatek EAEko intzidentzia-tasarik altuena izan zuen zenbait egunetan, eta horri lotuta beste baheketa bat egin zuten. Azkenik, Gabonei begira "zuhurtziaz" jokatzeko eskatu zuten osasun agintariek.

UZTAILA EZKERO, HILERO GORAKA EGIN DUTE BAILARAN ERREGISTRATUTAKO POSITIBO BERRIEK



Makina bat bizipen utzi du birusak

2020. urtea memorian iltzatuta geratuko den horietakoa izango da. COVID-19ak normaltasuna desagerrarazi du, eta bizitzako arlo guztiak baldintzatu. Bizipen eta protagonista ugari utzi ditu pandemiak, eta horietako hamabost batzen dira erreportaje honetan / **Xabi Gorostidi**

"Bizitzan pasa dudana egoerarik txarrena izan da"

EIDER GABILONDO DEBAGOIENEN LEHEN COVID-19 KUTSATUA **ARETXABALETA**

2020ko otsailaren 25ean hasi zen Eider Gabilondo gerora COVID-19 izenez ezagun egin den gaitzaren lehen sintomak igartzeko.

Otsailaren 19an, Milanen jokatu zen futbol partidu berezi bat ikustera joan zen mutil-lagunarekin eta uste du handik etorri zela kutsatuta —edo, bestela, Txagorritxun—, eta Gipuzkoako lehen kasu ofiziala izan zen. "Momentu hartan albiste bilakatu nintzen, eta ulertzen nuen bazegoela informatzeko beharra. Baina itogarria izan zen. Niri buruz zurrumurru asko hedatu ziren, eta kazetari askoren deia jaso behar izan nuen; horietako batzuek, gainera, ez zuten askorik enpatizatu nire egoerarekin". Konfinatuta egin zituen egunak gogorak egin zitzaizkion, "lau



pareten artean preso" sentitu zelako, baina are gogorragoa izan zen handik gutxira aita hil izana: "Bizitzan pasa dudana egoerarik txarrena izan da. Aita bakarrik utzi behar izan genuen Txagorritxun; nahiko genukeen moduan artatzeko, zaintzeko eta agurtzeko aukerarik ez izatea betirako markatuta geratuko zaigun zerbait izango da".

"Hamabost taldekide aritu ginen maskarak egiten"

CRISTINA CARDENAL MASKARAK EGIN DITUEN BOLUNTARIOA **ESKORIATZA**

Etxean sartzera behartu eta hilabete inguru pasa ostean, Eskoriatzako boluntario talde bat maskarak egiten hasi zen, herritarren artean doan banatzeko.

"Marta Cantera eskoriatzarraren bitartez hasi zen egitasmoa. *Eskoriatza opina* izeneko Facebook orrian mezua idatzi zuen proposamena eginaz, eta zenbait herritarrek egin genuen bat ideiarekin. Hala, Whatsapp taldea egin dugu, eta, batzuk maskarak egiteaz arduratzen garen arren, beste batzuk materiala lortzeaz arduratzen dira; beste batzuk, aldiz, leku batetik bestera eramaten... Hala ere, esan behar dugu ez direla maskara homologatuak, eta horren berri ere ematen diegu maskarak jaso nahi dituztenei, informazio-orri

baten bidez. Pollero dendako Arantxa Ruizek lekua utzi zigun bere etxeko atarian materiala uzteko. Enrique Mazmela dentistaren bitartez maskarak egiteko filtroak lortu ditugu, horiek desinfektatu eta berrerabiltzeko", azaldu zuen maskarak egiteko taldean aritutako Cristina Cardenalek.



"Alemaniak jarritako hegaldi bati esker itzuli nintzen"

MARIA AGINAGALDE EZIN OPORRETATIK ITZULI **BERGARA**

Debagoiendar batzuei erbestean zeudelarik heldu zitzaizen konfinamendua. Maria Aginagalde bergararrari, adibidez, Zeelanda Berrian oporretan zegoela heldu zitzaion. "Eromena izan zen etxera itzultzearena, eta ia hilabete pasatu zen lortu nuenera arte". Hasieran, itzultzeko gomendioa eman zieten, eta astebezez aritu zen hegaldiak bilatzen. "Begira jarri nintzen, baina hegaldiak oso garestiak ziren. Gainera, entzuten genuen eskalak egiterakoan ez aurrera ez atzera gelditzen zirela asko, eta ez genuen berme handirik". Ostean, konfinatzeko agindua ezarri zieten, eta beste hiru lagunekin etxebizitza bat alokatu zuen. "Bartzelonako bi pertsonarekin eta Avilako beste batekin sartu nintzen etxe



baten, aurrez inor ezagutu gabe. Elkarrekin aritu ginen etxera nola itzuli aztertzen, eta, azkenean, Alemaniak jarritako hegaldi batean itzuli ginen. Txeke zuri bat sinatu genuen, eta oraindik ez zait faktura heldu". Alemaniako aireportuan bertan hartu zuten Bartzelonara joateko txartela, eta handik etxera itzuli zen.

ZARRAMARRA

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 31N, EGUENEAN, 23:00ETAN

IKER PLAZAOLAK GIDATUTAKO 'LATE-NIGHT' SAIOA

goiena
20 URTE ZUENIN.



"Pribilegiatua izan naiz, ama agurtu ahal izan nuelako"**ARANTZA MUÑOZ** AMA HIL ZITZAION **BERGARA**

Gertukoan heriotzari beste era batera aurre egin beharra eragin du COVID-19ak, eta bakardadean hiltzera kondenatu ditu hainbat lagun. Arantza Muñozena kasu berezia izan, ama agurtzeko "pribilegioa" izan zuelako. Alarma egoera ezarri eta gutxira hil zitzaion, 87 urterekin. Iktusa izan zuen amak, baina, Donostiara ospitalera eramanean, eta bi biriketara pneumonia zuela ikusi zuten medikuek. "Domeka batean ospitaleratu zuten eta ezin izan nintzen berarekin egon eguaztenera arte". COVID-19aren proban negatibo eman zuen egin zioten bi aldietan; azkenerako, egin ahal izan zion lagun: "Nik izan nuen agurtzeko aukera, berarekin egon nintzen azken unera arte; hitz egin nion, ukitu egin nuen,

eskutik heltzeko aukera izan nuen. Pribilegiatua sentitzen naiz. Badago jendea bakar-bakarrik hil dena, ez senitarteko, ez inor; oso gogorra da hori, oso hotza". Pribilegioak pribilegio, ezin izan zuten nahieran agurtu. "Gogorra izan zen ama elizan ez agurtzea, oso pertsona sinestuna baitzen".

**"Beharrezkoak ziren umorea ekarri zuten balkoi-festak"****ANDONI MOTO** DJ-A **ESKORIATZA**

Etxetik irteteko debekuak eraginda, ordura arte sekula ikusi gabeko jai mota bat hasi zen herriz herri hedatzen: balkoi-festena, hain justu ere.

Aretxabaletan Ibai Zangitu eta konpainiarekin; Arrasaten Markel Goikolea edo DJ Erik-ekin; eta Eskoriatzan, DJ Motorekin. Musika dantzagarria jarri balkoietan ondo pasatzera gonbidatu zituen herritarrak, eta asterik atera festa tematikoak proposatzu joan zen. "Euskal -konfinamendu jaiarekin hasi ginen, eta sekulako erantzuna izan zuen eskoriatzarren artean".

Hori ikusirik, zapatuero gai bat proposatzea erabaki nuen, San Pedroko eta Intxartuetako jai batzordeekin elkarlanean, eta hala etorri ziren jai



mexikarra, edo jai sevillarra ere bai, besteak beste. "Nire auzoan badago bakarrik bizi den jende nagusi asko, eta, nire ustez, beharrezkoa zen balkoietara ateratzea eta ondo pasatzea; behintzat, alaitasun une hori izan zezaten". Herritarren esker ona ere jaso du. "Bai konfinamenduan eta ostan ere eskertu didate jarritako jai-giroa".


"Bakarrik egon zitezkeen horiei lagundu nahi nien"**IÑIGO IPARRAGIRRE** ZAINZA SAREA **ANTZUOLA**

Alarma egoera ezarri eta gutxira, laguntza sare herritarrek sortu ziren bailarako hainbat herritan. Horietako lehenetakoa Antzuolakoa izan zen. Taldea sortzeko asmoa zegoela jakinda, boluntario gisa parte hartzea erabaki zuen Iñigo Iparragirre antzuolar gazteak. "Ekimen polita eta beharrezkoa iruditu zitzaidan, hasieratik. Batez ere, pertsona adindunei laguntzeko eman nuen izena, horietako asko bakarrik daudelako eta laguntza beharra izango zutelako: elikagaiak erosteko, zaborra jaisteko, botikak jasotzeko...". Taldean boluntario asko pilatu ziren, eta aitortu du ez zutela lan-karga handirik izan. "Zorionez, ez genuen eskari handirik jaso. Nire kasuan, adindun batzuei eraman nizkien jakiak, eta zaborra

jaisten ere laguntzen nien. Ostan, gauza bera egin nuen COVID kasu batengatik konfinatuta zegoen familia batekin. Ez nuen eurekin kontaktu zuzenik izan; beraz, ezin izan zidaten eskerrik eman. Baina, nire ustez, pozgarria da auzotarrak elkarri laguntzeko prest daudela ikustea".

**"Erramu Zapatuan arto-irina agortu egin zen Bergaran"****IOSU AGIRRE** EZ JAIK **BERGARA**

Herriko jaiak normaltasunez ospatzea eragotzi du COVID-19ak, baina ez, ordea, jai-giroa arnastea. Bergarako Xaxau konpartsakoak aitzindari izan ziren debekuz betetako giro pandemikoan jai-giroa zabaltzen. "Erramu Zapatua izan zen lehen saiakera, eta erantzun aparta jaso genuen. Zerbait antolatze behar handia zegoela ikusita, egitarau bat lotu genuen: etxean taloak egiteko bideo bat egin genuen, txotxongilo lehiaketa, online bidezko emititutako kontzertuak, bertso-saioak... Jendeak primeran erantzun zuen, balkoietan musika jarri, txotxongilo pila bat ikusi ahal izan ziren... eta taloena arrakasta itzela izan zen. Bergara osoan arto-irina agortu egin zen; beraz, pentsa... Arto-irina



komuneko paperaren pare jartzea lortu genuen". Pentekoste jaietan ahaleginak egin zituzten ekintzak antolatze baina "ulergarritzat" jo zuten Udalak ezer ez egitea erabakitzea. Hala ere, ez ziren geldirik egon, eta *streaming* bidezko hamabi kontzertu lotu zituzten, Iñigo Herrerosen laguntzarekin, eta baita film laburren lehiaketa ere.



"Zortea izan dugu, negozioia irekita mantendu dugu eta"

IMANOL ALBIZU HARAKINA **ELGETA**

Norbere kabuzko langile askorentzat "infernua" izaten ari da martxoan hasitako egoera. Askok halabarrez itxi behar izan zituzten negozioen ateak, eta denbora luzez egon ziren diru-sarrerarik gabe eta gastuak ordaintzen.

Baina ezinbesteko izendapena duten hainbat sektoretako langileek ez dute aterik itxi: farmaziak, okindegiak, elikagai dendak, kioskoak... Hori da Imanol Albizu elgetarraren kasua, Elgetako dagoen harategi bakarrak lanean jarraitu baitu, etenik gabe. "Oso egoera arraroa bizitzea tokatu zaigu denoi; baina, gure kasuan, lanean jarraitzeko aukera izan dugu. Beste batzuk, ostalariak, esateko, nola dauden ikusita, zortedun sentitzen gara. Eskertuta gaude, eta jendeak ere

eskerrak eman dizkigu garai zail hauetan lanean jarraitzeagatik". Lanean beldurrik pasa ote duen galdetuta, zera erantzun du: "Beldurrik, ez; errespetua, ordea, bai. Zorionez, Elgetan ez da COVID-19 kasu askorik pilatu, eta horrek segurtasun gehiago ematen dizu lanera joateko orduan".



"Lehen olatua izan zen larriena; orain, hobeto gaude"

OLATZ ETXABE ITURBIDE EGOITZAKO ZUZENDARIA **ARRASATE**

Adinekoen egoitzetan gogor jo du COVID-19ak, eta Arrasateko Iturbide egoitzan eragin nabariak izan zituen lehen olatuak.

"Lehen kutsatua agertu arte, kontrolpean izan genuen egoera; susmagarri pare bat izan genituen, isolatu egin genituen... Baina, lehen kutsatua agertu ostean, egoiliar ugari hasi ziren sintomak edukitzen, eta gaitza egoitza barruan hedatzen hasi zen. Medikuri berri bat etorri zen gurera, eta egoiliar guztiei probak egitea eskatu zuen, egoerari neurria hartzeko. Egoiliarren %80 kutsatua zeudela jakin genuen horri esker, horietako askok ez zuen-eta sintomarik". Egoitza berrantolatuta zuten, lautik hiru solairu COVID kasuetara bideratuz, eta erizain



eta mediku gehiagoren laguntza izan zuten. "Egindako barne aldaketei esker, egoiliar asko sendatu egin ziren, baina, tamalez, bidean egoiliar asko ere hil ziren. Orain, 20 egoiliar gutxiago ditugu; Aldundiak, momentuz, ez ditu berriak sartuko. Hala, egoera onean gaude, eta lehen baino giza baliabide gehiago ditugu egoiliarrek ondo artatzeko".

"Gainditu egin nuen, baina nagusiek arduratzen naute"

ROSA MARIA SANCHEZ VALOR BIRUSA GAINDITU DU **ARRASATE**

Rosa Maria Sanchez bailaran egondako lehen kasuetakoa izan eta, zorionez, birusa gaingitza lortu zuen.

"Hasieran, lur jota zaude eta dena oso ilun ikusten duzu, baina osasun zerbitzu bikaina daukagu, eta gaixotasun hau gaingitu daiteke. Hemen nago ni: hainbat patologia ditut, eta gaingitu dut", adierazi zuen apiril hasieran, birusa gaingitu eta gutxira.

Eskertuta azaldu zen, oso, osasun arloko langileekin: "Osasungintzakoei nire eskerrik beroena. Zoragarriak zarete! Txalo jotzen dizuet egunero-egunero!".

Hala ere, arduratuta dago birusak adindunengan izan dezakeen eraginagatik: "Kontuz gure nagusiekin. Nire kezka handiena gure aitona-

amonak dira. Kolektibo ahulena da, eta ondo zaindu behar ditugu. Gure alde egin dute borroka bizitza guztian zehar, eta ez dute gertatzen ari zaiena merezi".

Gaur egun nekea igartzen jarraitzen duela dio, baina "ondo" dagoela. Berriki PCR proba egin du Arrasateko bigarren baheketan, eta negatiboa eman du.



"Jendeak behar handia zuen ile-apaindegira etortzeko"

IZASKUN OLABE IO ILE-APAINDEGIA **OÑATI**

Martxoaren erdialdetik maiatzaren hasierara arte itxita egon ziren herrietako denda eta zerbitzu gehienak, baita ile-apaindegiak ere.

Aste haietan guztietan herriar askori pilatu zitzaion ile-apaindegira joateko beharra, eta ile-apaindegiek bete-betean igarri zuten. "Dendako dei guztiak nire telefono pertsonalera birbideratzen dira; beraz, komertzioak irekitzeko aukera ikusi bezain laster, dei pila bat jasotzen hasi ginen. Telefonoa jo eta jo eduki nuen, eta, halako batean, ia 100 bezero zerranda edukitzera heldu ginen. Guztien txandak behar bezala antolatzea ez zen erraza izan, baina zabaldu orduko hilabete osoko txandak beteta genituen. Guretzat pozgarria izan zen, hainbat astez lan egin gabe egon



ostean", azaldu du Oñatiko IO ile-apaindegiko Izaskun Olabek. Jendeak ilea konpontzeko behar handia zuen galdetuta, zera erantzun du: "Mozteko baino gehiago, ilea tindatzeko behar handia izan zuen askok; mozteko ere bai, noski, baina tindatzeena gehiago igartzen da. Askok etxean egin zituzten tindatzeak, baita ondo egin ere".



BERGARA

www.alet-taldea.com

Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia

**Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan
eta litiozko baterietan adituak gara.**

Urte berri on!



"400 osasun etxetan jarri ditugu kristalezko manparak"**GERARDO URIBESALGO** ARRASATE KRISTALDEGIA **ARRASATE**

Pandemiak ez ditu soilik negozioak kaltetu. Gutxi batzuen kasuan, negozio aukera izan da, eta horren adibide garbia da Arrasate Kristaldegia enpresa. "Pandemia Txinan azaldu zenean, maskara eta kristal eskari handia egin genuen, lan aukera bat ikusi genuelako. Hala, lehen kristalezko manpara bat egin genuen Debagoieneko Ospitalearentzako, proba gisa. Oso ondo funtzionatu zuen, eta, gutxinaka, Osakidetza zentro guztietan jartzen joan gara: ospitaleak, eguneko zentroak...". Euskal Herriko zenbat osasun etxetara heldu diren galdetuta, hona bere erantzuna: "Gutxi gorabehera, 400 zentrotan jarri ditugu manparak".

Plastikozko edo kristalezko manparen artean alde handia dagoela dio:

"Plastikozkoetan pitzadurak egiten dira, eta birusa pitzadura horietan gelditu daiteke. Kristalezkoetan, aldiz, ez da pitzaduretan geratzen eta askoz hobeto desinfektatzen dira. Gure kasuan, segurtasunezko kristalak jartzen ditugu, autoen aurrealdeko beirek dituztenak bezalakoak, ezin baitira zatitan hautsi".

**"Tabernari gisa inoiz bizitako une latzenak izan dira"****MIKEL PEREIRO** OSTALARIA **ARAMAIO**

COVID-19ak ekonomiaren sektore asko kolpatu ditu, eta, horien artean, ostalaritza izan da kolperik handiena jasan duenetako bat.

Horren adibide garbia da Aramaion bi taberna dituen Mikel Pereiro ostalaria: "Tabernari gisa unerik txarrenak bizi izan ditut pandemia honetan: polizia lanak egin beharra, bezeroekin eztabaidak, ezjakintasuna... Azken finean, tabernaria naiz ni; ez ertzaina, ez legeak egiten dituen norbait. Ez diot inori opa bizi izan duguna, ez da atsegina izan. Horrez gain, ostalaritza eta gazteak kriminalizatu gaituzte. Gure kasuan, guk dakigula, ez dugu kutsatze kasurik eduki tabernetan. Gainera, gazteak izan dira ezarritako arauak hoberen bete dituztenak".



Azaroan tabernak ixtera behartu zituzten, eta ordutik ezin izan dute zabaldu. "Gure kasuan, eramateko jakiak eskaintzearena baztertu egin genuen; une honetan, halabeharrezko ERTEan gaude langileok. Latza da noiz irekiko dugun ez jakitea. Kutsatze zifra ez dago gure esku, eta ezin dezakegu ezer aurreikusi edo aurreratu".

"Futbola alderatu, eta erizain gisa aritzeko unea zen"**OIHANA ALDAI** FUTBOLARIA ETA ERIZAINA **ARETXABALETA**

Futbol atezaina eta erizaina da, aldi berean, Oihana Aldai aretxabaletarra. Kordobako Pozoalbense taldean jokatzeko harrapatu zuen COVID-19aren etorrerak, eta, egoera ikusita, eskularruz aldatzea erabaki zuen martxoan.

"Ikusten nuen hedatzen ari zela COVID-19a eta osasun arloko profesionalak lanez gainezka zeudela. Nik ere gura nuen ahal nuen neurrian lagundu; erizaina izanda, neure burua eskaini gura nuen, beharra egonez gero lanerako gertu nagoela esanez".

Klubaren baimena behar zuen horretarako. Txapelketak gelditu zirenez ez zioten inongo trabarik jarri, eta Aretxabaletera itzuli zen Zumarragako ospitalean lanean hasteko. "Beharra zegoen tokira joateko prest nengoen,

baina, aukeran, egia da nahiago nuela etxera etorri eta Euskal Herriko ospitale batean jardun". 2020-2021 denboraldi berrian Gijongo Sporting taldearen elastikoa defendatzen ari da Aldai, baina erizain eta atezain eskularruak aldi berean erabiliz: "Goizez, osasun zentro batean egiten dut lan, zortzi orduz".

**"Bigarren olatuan baliabide gehiago izan ditugu"****ANE BLANCO** ERIZAINA **BERGARA**

Sortzez bergararra da Ane Blanco, baina zortzi bat urte daramatza Katalunian bizitzen. Birusak eszedentzian zegoela harrapatu zuen. Bi urteko etenaldia egin zuen goi-mailako Ryzon triatloi taldeko atletekin bidaiatzeko. Baina aurrez lan egiten zuen ospitalean bere beharra zutela esan ziotenean, bidaia eten zuen, berriz ere erizain aritzeko. "Baietz esan nien, noski; eszedentzia moztu eta lanera itzuliko nintzela". Gogoan du lehen olatuan babes-material falta handia zegoela, eta oso une latzak bizi izan zituzten. "Atsedetik gabe ari gara, eta psikologikoki oso egoera gordinak ari gara bizitzen. Pentsa, egin dudana azken txandan bakarrik sei pertsona hil dira", adierazi zuen apirilean. Bigarren olatuari "egoera hobean" egin diote



aurre: "Babes material gehiago dugu eta askoz hobeto antolatu gara". Gabonetan neurriak erlaxatzea ez du begi onez ikusten: "Ez du zentzurik; urte osoan hartutako neurriak mantendu edo, are gehiago, zorroztu egin beharko genituzke. Ez da ezer gertatuko urte batean Gabonak normal ez ospatzeagatik".



2020a pandemiaren urtea izan da arlo ekonomikoan ere. Izurriak gogor eragin du aspektu guztietan, eta, besteak beste, sistemaren ahuleziak azaleratu ditu. Ahuleziak, osasun arlokoak, sozialak, oinarritzko zerbitzuenak eta ekonomikoak.

Lehenengo seihilekoan erorketa ikaragarriak bizi izan zituen barne produktu gordinak (BPG), urte arteko %3koa lehenengoan eta %20koa bigarreanean. Instituzioek ekonomia-osasuna dileman lehenengoaren alde egindako hautuak susperraldi garrantzitsua ekarri zuen eta urte arteko %7,5eko jaitsierarekin itxi zen hirugarren hiruhilekoa. Sektoreka guztiek izan zituzten antzeko jaitsierak, baina, bat nabarmentzekotan, merkataritza, ostalaritza eta garraioak osatzen duten azpitaldea da aipagarria, %10,2ko jaitsiera-ekin itxi baitzuen hirugarren hiruhilekoa.

Nola itxiko den 2020a? Jaurlaritzaren azken aurreikuspenei jaramon eginez gero, %10,1ekoa izango da jaitsiera. Laboral Kutxarenak antzekoak dira. Nafarroarako, aldiz, %9,5eko jaitsiera aurreikusten du azken honek, eta 2021erako %7 inguruko igoeira iragartzen du bi erkidegoetarako.

Horrek eragin handia izan behar luke langabezia tasan, baina ez da hainbestekoa izan datu ofizialetan. 2020ko hirugarren hiruhilekorako Eustatek emandako datuek %10eko langabezia tasa agertzen dute, 2019ko amaieran baino puntu erdi gehiago -%9,5ekoa izan baitzen-, eta Gipuzkoarako, berriz, hiru hamarren gutxiago -%6,9-, 2020ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urtearen amaierako %7,2ren aurrean. Daturik ez dagoen arren, hobekuntza horrek ez ditu jasotzen lanik egin

Eredu oso bat, zomorro batek zalantzan ipinia

Ekonomiaren berreskuratzea oso lotuta egongo da COVID-19aren kontrako txertoaren orokortzearekin, baina 2020an bizitakoak balio beharko luke eredu jasangarriago baten aldeko lanketak gehitu eta etorkizun justuagoa irudikatzen hasteko/ **Miren Arregi**

ezinik dauden edo egon diren autonomoenak edota aldi baterako erregulazio espedientean dauden langileenak. Beraz, ez du errealitatearen argazki fidagarrikerak erakusten. Berez, jarduera tasa, populazio aktibotik lanean ari den portzentajea ezartzen duena, jaitsi egin da bi puntu aurten go hirugarren hiruhilekora arte EAEn, eta Gipuzkoan %2,5.

Sektore kaltetuenak

Ekonomiarendako urte negargarria izan da, ez hemen bakarrik, baizik eta mundu osoan. Ekai Centerko presidente Adrian Zelaiaren ustez, "eztandaren urtea" izan da 2020a. "2008a ezkerro, ere-

du neoliberal eutsiezin baten amaiera iragartzen ari zen; eredu neoliberal horrek ez zuen gehiagorik ematen, eta soilik modu artifizialean mantendu da neurritz kanpoko hedapen monetarioaren bidez. Neoliberalismoa bultzatzen duten eliteek ere onartu dute 2020an eredia agortu egin dela eta kapitalismoaren berfundazioa beharrezkoa dela", dio adituak. Krisiak gehien kaltetu dituen sektoreei begiratuz gero, horiek izan daitezke ostalaritzarena eta turismoarena. Horien bilakaera COVID-19aren kontrako neurrien arabera izango da. "Denborarekin, eskualdean berezko pisua berreskuratze joera izango duten sektoreak dira. Jarduera horien eskaria pixkanaka itzuliko baita bere maila naturalera. Arazoa da negozio asko itxi egin go direla eta -eskaria berreskuratzen denean- beste batzuek hartuko dutela horien merkaturak", uste du Zelaiak. Mondragon Unibertsitateko Ekonomia irakasle

Monika Gago eta Amaia Oleaga ere iritzi berekoak dira bilakaerari dagokionez; izan ere, "oso lotuta egongo da txertoa orokortu bitartean hartuko diren babes neurriekin eta murrizketen arintze prozesuarekin". Sektore kaltetuen artean, Zelaiak aipaturikoez gain, "kulturgintza, garraioa, merkataritza txikia eta, orokorrean, horrelako zerbitzuei lotutakoak" nabarmendu dituzte irakasleek.

Eskualdeko errealitatea

Mondragon Unibertsitateko irakasleen ustez, eskualdean, zerbitzuen eta merkataritzaren sektoreak beste leku guztien pareko

2021EAN, 150 MILIOI MUTURREKO TXIRO GEHIAGO EGONGO DA MUNDUAN, PANDEMIK ERAGINDA

estualdia bizi du. Haien esanetan, industria jardueran eragina ezberdina da, arloaren arabera: "Eraikuntzarekin, automozioarekin eta garraioarekin lotura duten jarduerak asko sufritu dute, besteak beste. Sektore horiekiko mendeko diren jarduerak euren etorkizuna zalantzan ikus dezakete". Aipatu behar da, pandemiaren ondorioz berritzaile izan diren enpresak ere badirela gurean. Maskaren negozioan sartu diren Mondragon Taldea eta Wolfratex dira horietako bi adibide.

Bestetik, eskualdeko ekonomia kooperatibei oso lotua egonik, "bertako industriak erresilientzia handiagoa erakusten du", Gagoren eta Oleagaren esanetan: "Lanpostu horiei eusteak gainerako jardueretan hainbesteko galerak ez izatea eragin dezake ohiko krisi ekonomikoetan, baina kasu honetan... egoera beste bat da, hainbat jarduera ekonomiko ezin baitira gauzatu". Adrian Zelaiak ere kooperatiben egiturak krisiegoerei aurre egiteko duen gaitasun handiagoa nabarmendu du, "bai dibertsifikazio sektorialagatik, bai kooperatiba izateagatik. Langileek, jabe gisa, enpresa-jarduera mantentzearen aldeko apustua azken muturreraino egin ohi dute".

Muturreko txiroak

2008an hasitako krisiak utzitako zauria areagotu besterik ez da egin 2020an, eta orain arteko eredu produktiboan hainbat aldaketa gertatuko dira. Hasteko, lan eskaria murriztu egingo da eta muturreko txiroen kopuruak gora egiten jarraituko du. Munduko Bankuaren arabera, azken 20 urteetan gora egin du kopuruak lehen aldiz 2020an; 88 eta 115 milioi bitarteko muturreko txiro gehiago izango dira munduan





Ostalaritza izan da krisiak gehien kaltetutako sektoreetako bat.

aurten, eta 2021ean 150 milioi gehiago. Nazio boteretsuenek irtenbide bat aurkitu beharko dute oinarritzko errentaren bidez, baina zer gertatuko da inongo estalkirik gabe geratuko diren guztiekin? Pentsa daiteke migrazio mugimenduak areagotu egingo direla.

Aro baten bukaera?

Pandemiak gauza asko azaleratu ditu nazioarteko ekonomiari dagokionez ere. "Batetik, mendealde osoan oinarritzko zerbitzuetan egindako murrizketen ondorioak. Bestetik, Europaren eta Ameriketako Estatu Batuen behin betiko gainbehera, gorabidean dauden herrialdeen eta, bereziki, Txinaren aurrean. Azkenik, itxura guztien arabera, mendealdeko elite korporatiboak neoliberalismoaren ordeztu "suntsiketa sor-

tzailearen" aldeko apustua egin du aurten", dio Zelaia.

Monika Gago eta Amaia Oleaga irakasleendako eredu ekonomikoaren inguruan asko erakutsi du izurriak: "Zaintza lanekiko erakusten duen itsutasuna, ingurumenaren narriadura handian oinarritzen diren jarduerak, osasun arloko gabezia handiak, zahartzen ari den gizarte baten azpiegitura eta lanpostu egonkor eta duinen falta".

Hala, hainbat ekonomialari eta pentsalariren ustez, aro baten bukaera eta beste baten hasieran gaude eta 2020ak balio beharko luke aldaketa sistemikoaren hasiera bat irudikatzeko. Hain zuen ere, iritzi horretakoak dira Mondragon Unibertsitateko irakasleak. "Zerbait oso gaizki egiten ariko gara berritua ere jarduera ekonomikoa lehengo mailara eraman nahi badugu, egiturazko aldaketarik egin gabe. Ez genuke pandemiaren aurreko egoerara bueltatzea helburu gisa jarri beharko. Espero dezagun pandemiaren aurreko egoerara inoiz ez bueltatzea". Izan ere, diotenez, "planetako baliabide naturalen agortzea, energia kutsatzaileen kontsumo izugarria, biosferak asimilatu ezin dituen hondakinak neurrigabe sortzea, ekoizpen eta kontsumo eredu jasanezinak eta lan baldintzen okertze orokortua" errotik aldatzea ezinbestekoa izango da.

Konfinamenduaren eraginez jarduera ia guztiak geldiarazi behar izan zirenean, zenbait ingurumen indikatzaile hobetzen hasi ziren nahiz eta ez zen nahikoa jasagarritasuna bermatzeko bidean. Honek guztiak balio beharko lioke gutako bakoitzari, pentsa arazteko eta zer nolako etorkizuna irudikatu gura dugun hausnartzeko.

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Konfinamendua

Martxoaren 14an alarma egoera ezartzearekin batera hasi zen oraindik ere gauditua ez den ekonomiaren gainbehera.

BPG: %10 behera

Aurreikuspen txarrenak beteta, urtea barne produktu gordinaren %10,1eko jaitsierarekin itxiko da.

Langabezia tasa

Langabezia tasan ez da aldaketa handirik izan, baina ez ditu jasotzen lan egin ezinik dauden autonomoak, ez eta aldi baterako erregulazio espedienteetan daudenak.

Muturreko txiro gehiago

2008ko krisiak utzitako zauriak areagotu egin dira nabarmen. 2021erako, 150 milioi muturreko pobre gehiago egongo dira munduan.

Erresilientzia, alde

Hemengo ekonomia kooperatibei oso lotuta dagoenez, tokiko industriak erresilientzia handiagoa erakutsi du.

Eredua, zalantzan

Eredu jasagarri baten aldeko ahotsak eta mugimenduak geroz eta ozenagoak dira.



Mondragon Assembly-k Txinan duen lantegian egin dituzte maskarak ekoizteko makinak.



2020an zehar *bertan behera* izan dira gehien errepikatu diren hitzetako batzuk, eta kirol arloa ez da salbuespena izan. Lehia asko erdizka, atzeratuta edo egin gabe geratu dira –amateur mailako txapelketetatik hasi, eta baita Olinpiar Jokoak ere–, eta kirolariei zuzen-zuzenean eragin die egoera ezegonkor horrek.

Hala ere, 2020ak izan ditu nabarmentzeko moduko hainbat kirol lorpen. Hala, Debagoienean, Euskal Herrian eta nazioartean batutako lorpenen errepasoa egiteko, Maitane Urbietak eta Adrian Beloki kirol adituen atea jo du GOIENAK.

Bailaran, izen propio ugari

Debagoien mailan, Eskoriatzako areto futbol taldearen zilarrezko ezteiak nabarmendu ditu Belokik. "*Areto futbola eta Eskoriatza* bat datozen hitzak dira, eta hori, hein handi batean, Narciso Pavok eta Miguel Muñozek herrian egindako lan mardularen emaitza da. Benetan txalogarria dela uste dut, hain herri txikia izanda, hainbat kategoriatan Eskoriatzaren izena hor egotea lortu baitute; urte luzez, gainera. Bailaran federatutako areto futbol talde gehiago daude une honetan: Aretxabaletan, Arrasaten... baina horientzat guztientzat, Eskoriatzako izenak da erreferentzia". Futbolarekin jarraituz ere, azpimarra jarri du Realeko Andoni Gorosabel jokalaririk arrasatearrarengan. "Realeko harrobiko jokalaririk ibilbide prototipikoa egin du Andonik. Ez du erraz izan lehen taldean jokatzeko, eta egiten zuen apur horietan asko kritikatzeko zuten: biguna zela defentsan, erasoko jokoan oso ahula zela... Baina 2020an aurrerapauso handia eman du, eta aho asko ixtea

Bada kirol urte beltzean distira egin duenik

Kirol arloa ez da libratu pandemiaren eraginez, eta urte xelebrea izan da aspektu askotan. Hala eta guztiz ere, txapelketa asko egoerara moldatu dira, eta asko izan dira ezohiko urte honetan distiratzea lortu duten kirolariak / **Xabi Gorostidi**

lortu. Horren saria izan da aurtent sinatu duen kontratu-luzatzea". Leire Rato eskoriatzarrak lortutakoa ere azpimarratu nahi izan du Belokik. Eskoriatzako Atama taldeko borrokalariak Espainiako *combat sambo* modalitateko txapelkun izatea lortu zuen azaroan. "Leirek lortutako marka garrantzitsua da, oso. Baina garaipen horren atzean badago aspalditik datorren ibilbide bat. Nik duela hamabost urte ez nuen *kenpo* hitza ezagutzen, baina Rafa Carrieti esker eskoriatzarroi hitz hori ez zaigu arrotz egiten. Urteetan zehar jende asko erakarri du bere entrenamendu saioetara, eta kirol gutxitu hori ezagutarazteko ezinbesteko lana egin du. Beraz, Leirek lortutakoa nabarmentzeaz gain, urte luzez Rafak egindako ibilbidea ere nabarmendu nahiko nuke".

Euskadi Irratiko Maitane Urbietak esatariaren ustez, Irune Murua izan da izen propioeta-



Eneko Carrascal, jauzia egiten, Mojategin egindako lan-saio batean.

ko bat: "Arrasateko jokalaririk honen bilakaera ikaragarria dela uste dut. Urrats erraldoiak eginez joan da, eta Ameriketako Estatu Batuetara joatea ez dago edonoren esku. Pauso ausarta dela uste dut; are gehiago, jokatzera eta, aldi berean, ikastera doala ikusita. Deigarria da ere zenbat unibertsitate aritu diren haren atzetik; azken finean, oso lan ona egiten duen seinale da hori".

Eneko Carrascalak Espainiako Txapelketan lortutakoari ere egin nahi izan dio azpimarra: "Atleta guztiak dabilta euren marka pertsonalak hobetu nahian, eta, haren kasuan, bi diziplinatan lortu zuen: luzerajauzia eta jauzi hirukoitzean. Gainera, hobekuntza horiek urrezko domina forma hartu zuten Espainiako 23 urtez azpiko txapelketan... Beraz, azpimarratzeko moduko lorpena da, nola ez".

Chorraut, Rahm eta Eibar

Euskal Herriari dagokionez, Eibarren dagoen kirol mailak bereganatu du Maitane Urbietaren arreta: "Eibarrek duen biztanle kopurua ikusita, harriagarria da bertako kirol klubek duten maila. Lehen, eta, agian, oihartzun handien duena gizonen futbol taldea da. Baina aurtent herriko beste bi talde daude maila gorenean jokatzeko: emakumezkoen futbol taldea Bigarren Mailatik Lehen Mailara igo da, eta emakumezkoen errugbi taldeak Lehen Mailan aritzeko txartela lortu du. Sekulako meritua du hori lortzeko, eta erakusten du Eibarren gauzak oso ondo egiten dituztela". Jon Rahm golf jokalaririk egindako urtea ere goraipatu du: "Mundu mailako zerrendako

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzuliketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezeko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrak izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

Urte Berri On!



ZURICH

MP del War Unifolia Negozioa



Catalana Occidente Seguros
Miliari Egialetza Unifolia

Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI

Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20

Faxa: 943 78 31 36



Irene Murua arrasatearra, Ameriketako Estatu Batuetan, Louisiana Tech taldeko elastikoarekin partidu bat jokatzen.

lehena izatea ikaragarria da, eta Barrikakoak lortu egin du. Bigarren postuan amaitu du 2020a, eta aurten PGA txapelketako bi proba irabazi ditu".

Maialen Chorraut eta Odei Jainaga nabarmendu ditu Adrian Belokik. "Chorrauten kasuan, Euskal Herrira itzuli da, hama-bost urtez Lleidak La Seu D' Urgellen entrenatzen aritu eta gero. Urtez luzez aritu da Euskal Herrian entrenatzeko azpiegiturak eskatzen, eta badirudi lortuko duela, Zubietan badagoelako era horretako kanal bat eraikitze proiektua. Eta Jainagaren kasuan, zer esan... Birritan hobetu du aurten Espainiako marka xabalina-jaurtike-tan, eta basatia izan da eman duen maila". Abuztuan 70 zentimetro ondo zuen, eta marka 81,90 metroan ezarri. Irailean, berriz, bi metro pasatxo ondu

zuen aurrekoa, eta 84,10 metroko errekorra ezarri. "Badakizu oso realzalea naizela, eta Jainaga Real Sociedad taldeko atleta da. Bere lanari esker, hobeto ikusi ahal izan dugu Reala klub handia dela, futbola eta beste hainbat modalitate barne hartzen dituen kluba, alegia".

Mundu mailako izarrak

2020ak utzitako kirolari onenen lupa mundu osora zabalduta, emakumezkoen Lyongo Olimpique taldea da Maitane Urbietaren ustez aitortza merezi duen

**MUNDU MAILAN,
LEWIS HAMILTONEK
HAUTSITAKO MARKAK
NABARMENDU DITU
MAITANE URBIETAK**

protagonistetako bat: "Taldekako kirolean urte zaila izan da, bereziki, norbait nabarmentzeko. Baina, dudarik gabe, Lyongo Olimpique taldeko emakumeen futbol taldeak merezi du aipamena egitea. Aurten, berriz ere irabazi dute Txapeldunen Liga, eta jada bosgarren urtea da jarraian. Gainera, txapelketa horretako finalerdiak Bilbon eta Donostian jokatu ziren, eta finala, Reale Arenan. Bost aldiz jarraian zerbait irabaztea marka itzela da, eta, Txapeldunen Ligan dagoen maila ikusita, are

**ESKORIATZAKO ARETO
FUTBOL TALDEAREN
IBILBIDEAN JARRI DU
AZPIARRA ADRIAN
BELOKIK**

gehiago. Gehitu horri taldeko izar den Ada Hegerberg-ek ez duela taldea lagundu aurten, eta horrek meritu handiagoa ematen dio 2020ko garaipenari".

Lewis Hamilton-ek aurten lortutakoak ere goraiatu ditu Urbietak: "Zalantzarik gabe, 2020ko izarretako bat da, 1 Formularen historia egin baitu aurtengo emaitzekin. Txapelketa irabazi du berriz ere, jada zazpi titulu ditu poltsikoan, eta Michael Schumacher berdindu du. Hori gutxi ez, eta lasterketa gehien irabazi dituenen rankingean lehena da orain, berriki Schumacherrek ezarritako marka historikoa hautsi ostean".

Adrian Belokiren iritziz, Naomi Osaka tenisleriak eta LeBron James saskibaloi jokalaria merezi dute aipamen berezia; bai kirol alorrean lortutakoagatik, eta baita pistetatik kanpo "erakusten duten konpromisoagatik. Naomi izan da urteko tenisleri onena, eta kirol mailarekin lotutako arrazoiak soberan ditu. Baina, errendimendu aparte horrez gain, konpromiso sozial handia du. Aurten, adibidez, US Open Txapelketa jokatzen ari zela, uko egin zion partidu bat jokatzeari, George Floyd-en erailketa zela eta. Horrez gain, jantziak eta markak kontzienteki aukeratzen ditu, beti. Marka txikien alde egiten du, eta bere jatorri japoniar eta haitiarrei keinu asko egiten die jantzien bitartez. Eta LeBron Jamesekin gauza bera. Aurten berriz lortu du NBAko txapeldunen eraztuna, Lakers-ekin lehen aldiz. Baina bera izan zen bultzatzaile nagusietako bat erailketa arrazistak salatzeke NBA bi astez geldiarazteko. Kirol arloan eredu dira, baina handik kanpo ere bai".

URTEKO ERREPASOA LABUR

Sokatira

Otsailean jokatu zen Munduko Txapelketa, Irlandan, eta Ione Elorza oñatiarrak bi urrezko domina lortu zituen Badaiotz taldearekin.

Mendi lasterketak

Jaenen jokatu zen Espainiako Txapelketa, martxoan, eta Aitor Ugarte aramaioarra onena izan zen 18 eta 20 urtez azpiko kategorian.

Futbola

Maiatzean, Eibarren emakumeen taldeak igoera lortu zuen Lehen Mailara. Hala, Eider Egaña oñatiarrak eta Uxue Iparragirre antzuolarrak emakumezkoen futbol elitean jokatuko dute, Vanessa Gimbert bergararrekin batera.

Txirrindularitza

2020-2021 denboraldian hiru txirrindulari debagoiendar izango ditu Laboral Kutxa taldeak: Ainhize Barrainkua, Garazi Estevez eta Xubane Garai.

Futbola

Bi debagoiendar aritu ziren lehian Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente izateko, eta, azkenean, Manu Diaz bergararra izan zen garaile.



Areto birtualak, industriarako lagun eta etsai

Indartsu abiatu zen kultura eskaintza, baina martxoan bat-batean eten zen. "Egoerara moldatuta" eutsi zioten udan eta errenka jarraitu udazkenean, nahiz eta profesionalek eta publikoak ozen aldarrikatu "kultura segurua" dela / **Aitziber Aranburuzabala**

La trinchera infinita filmarekin Goya sarietarako zituzten hamabost izendapenetatik bi sari jasota ekin zion Moriarti ekoiztetxeak 2020ari, eta datorren apirilean banatuko dituzten Oscar sarietarako behin betiko izendapena lortzeko aukerarekin borobilduko dute urtea. "Bide luzea eta zaila da oraindik. Izendatuen artean egoteak aukera oso ona eman digu Ameriketako Estatu Batuetan filma ezagutzera emateko", dio Aitor Arregik.

Zinegileek, sentsazio gazi-gozoa Urtea definitzeko eskatuta, hau dio zinegile oñatiarrak: "Atzean dagoen drama ikusita, urte txarra izan da. Lanari dagokionez, gure kasuan, *standby* egoera bat izan da; pausa barik, baina martxa motelean. Sektoreari dagokionez, oso garbi ikusten dira bi kontu: batetik, plataformek sekulako indarra hartu dutela, eta, ondorioz, lan gehiago dagoela; baina, bestetik, zine

aretoek sekulako egurra hartu dute, eta batzuek egoera aprobetxatu dute aretoak ixteko".

Kimuak programako koordinatzaile Esther Cabero bat dator Arregirekin: "Datorkigun erronka nagusia banaketa-bideetan oreka aurkitzea izango da. Kontsumitzeko moduak ez luke sektorea arriskuan jarri beharko. Sortzaileek eta eragileek ikusi dugu funtsezkoa dela elkarlanerako bide gehiago zabaltzea, eta uste dut joera horrek bere horretan jarraituko duela".

Bergarako zinegile Asier Altuna *Kixi* eta haren Txintxua Films-eko lantaldea lanpetuta

ZINEGILEENTZAKO LAN AUKERAK SORTU DITUZTE PLATAFORMA DIGITALEK; KRISIA, BERRIZ, ARETOETAN

dabil, eta sektorea "bizirik" dagoela dio: "Zine aretoak krisian daude, baina, aldi berean, telesailen leihatila zabaldu da; guk azaroan estreinatu genuen *Hondar ahoak* telesaila ETBn. Bestetik, oso polita izan zen *Arzak since 1897* dokumentala Zinemaldian aurkeztea eta Victoria Eugenia lepo beteta ikustea; hala ere, aretoetan ez zuen askorik iraun gero. Jaialdiei dagokionez, filma datorren urtean mugitzen hastea erabaki dugu. Azpimarratu nahi dut jende asko proiektu sendoei eta landuei ari dela ikusten dugula, baina, zoritxarrez, dirulaguntzak ez dira nahikoak".

Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu duen *Erlauntza* filma azaroan estreinatu zuten eta harrera ona izan du aretoetan: "Martxoan erabaki genuen filmarekin aurrera egitea, eta orain pozik gaude, egin ahal izan dugulako. Izaten ari den harrerarekin pozik gaude; oso

publizitate gutxi eginda, jende asko joan da ikustera".

Iaz estreinatu zuen *Glittering Misfits* dokumentala Iban del Campo arrasatearrak eta aurten jaialdi eta bestelako ekimen askotan ari direla aurkezten dio: "Azken hilabeteetan, Valentzian, Argentinan birritan, Mexikon... izan da, eta Euskal Herrian ere toki askotan erakutsi dugu. Filmin plataforman ere badago eta beste batzuetara zabaltzeko lanean ari gara". Goya eta Feroz sarietarako izendapena eskuratzeko hautagaien artean dago dokumentala, nahiz eta egileak ez duen esperantza handirik. "Film hain punka, independentea eta librea izanik, uste dut ez daukala toki handirik Goya sarien mundu akademikoan, baina gustura nago hautagai moduan dagoelako".

Urtea, eskualdeko begietatik, "oparoa" izan dela dio Kimuakoak: "Kontatutakoez gain, Iban Gonzalezek *Ni naiz Lete* doku-

mentala egin du, eta Iñaki Peñak eta Arteman Komunikazioak *Mendian hil, hirian hil* izenekoa, Mendifilm jaialdian saria jaso duena. Eta datorren urtean ikusiko dugu Arrasateko Manu Gomezen *Érase una vez... Euskadi* filma, eskualdeko hainbat txokotan grabatu duena".

Eskualdeko aktoreak, bogan

Erakuslehoi ona da Donostia Zinemaldia, nahiz eta eskaintza murriztagoa eta dirdira gutxiago izan den. *Akelarre*-ko (Pablo Agüero) Yune Nogueiras bergararrak eta Lorea Ibarra arrasatearrak nekez ahaztuko dituzte aurtengo jaialdiko bizipenak; aretoetan ere ondo hartua izan zen euren estreinako filma. Ibarrek *Ane* (David Perez Sañudo) lanean paper txiki bat izan zuen. "Zinegile berri eta gazteen urtea da", dio Caberok.

Jon Olivares osintxuarra aktore ezagunen zerrendan sartu da, *Patria* telesailan egindako



Kultura ekitaldietarako aretoen edukiera erdira murriztuta dago.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?

Zatoz batu-banatural!

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

Batu Banatu:
zure publizitate-banaketa, neurritan!

batu-banatu

Urte berri on!

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus

lanagatik. Zinemaldian "arrakastaz" aurkeztu zuten, eta segidan joan zen abenduan ETBn eskaintzen ari diren *Altsasu* telesaila grabatzera. Mikel Lascurain ere *Patria*-n izan zen, eta otsailaren 8an Espainiako Zinema Informatzaileen Elkar-teak banatzen dituen Feroz sarietarako, telesailatako taldeko gizonetako aktorerik onena izeneko saria lortzeko aukera du.

Kepa Errasti ere geratu barik ibili da; telebistan *Etxekoak* telesailan eta *Barre libre*a saioan jardun du. Antzokietan, berriz, kide den Xake konpainiarekin *Fadoak entzuten zituen gizona* estreinatu zuen irailean, eta urrian "arrakastarekin" eskaini zuten Bergaran, Aretxabaletan eta Arrasaten. Mireia Gabilondok eta Errastik lan asko egin dituzte elkarrekin, eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren auziari buruzko *Sisiforen paperak* antzezlan berrian ere biak daude. "Poztekoa da, edukiera erdira jaitzita bada ere, sarrerak ondo saltzen direla ikustea. Datorren urtea zaila aurreikusten dut, udal askok ez dute eta programaziorik lotu", dio Gabilondok.

Saretik, aurrez aurrekoetara

Itxialdi garaian sarea izan zen sortzaileendako plaza, eta kultura-zaleentzako arnasmune. Estudio txiki asko sortu dira etxeetan eta sare sozialak izan dira erakusleho. Artista berri asko agertu ziren kantu ezagunen bertsioak egiten, eta musikari ezagun askok sarean aurkeztu zituzten euren lan berriak.

Martxotik ekainera ez zen kultura ekitaldirik egon. Uztai-lean hasi ziren, udalen eta beste eragile batzuen eskutik, neurri murriztaile askorekin, aire librean, herriko txoko asko



Durangoko Azokako salmenta online egin dute aurten, eta biltegi erraldoi bihurtu dute Landako gunea.

agertoki bihurtuta. Jarrera "ausarta eta ameslariarekin" abiatu zuten Felipe Uriarte mendi gidariak eta Migel Zeberio musikariak beste hainbat lagunekin batera Urmuga ekimena, eta, hiru astean, "arrakastaz" Euskal Herria mendiz mendi zeharkatu zuten natura eta musika uztartuta.

Iker Galartzaren Gure Zirkuko lantaldeak Orio aukeratu zuen udako agertoki moduan, eta udazkenerako Arrasate. Arruena parkean muntatu zuten karpa, eta hiru astean 8.000 lagun inguru sartu ziren.

Gurpila mugitzen hasi zela zirudien, baina udazkeneko eta neguko eskaintza ez da "behar bestekoa" izan; hori horrela, "kultura segurua" dela aldarrikatzen jarraitzen du arloko profesionalek sortu duten Aler-ta Gorria plataformak. "Sektoreak zelako esparru zabala hartzen duen -ekonomian, gizartean eta kultura arloan- era-

kustea lortu dute. Ez dago araututa zentzu askotan, eta, azkenean, elkartu egin dira, administrazioari eta gizarteari kultura ekitaldiak beharrezkoa direla aldarrikatzeko. Urteko gertakari garrantzitsuenetakoa izan da, nire ustez, Euskal Herria eta mugetatik kanpo ere bai", dio Iker Barandiaran musika adituak.

"Antolatu gura, baina ezin"

Irudi "bitxiak" ikusten dira gaur egun kontzertuetan; deigarria da publikoa jarrita egotea. Ez da gustukoa artistarentzako, ezta zalearentzako ere; hala ere, guztiek "eskertzen" dute anto-

latzaileek egiten duten ahalegina. Oñatin martxoan egitekoak ziren Beratu jaialdia hainbat moldaketarekin urrian egin zuten; hala ere, zoritxarrez, ekimen batzuk etenda daude. "Ezin izan genuen hamargarren Kooltur Ostegunak bukatu, eta urrian abiatu genuen hamaikagarrena, baina bi kontzertu besterik ez genuen egin, eta, oraingoz, etenda dago. Oso zaila da", dio Barandiaranek.

Durangoko Azoka, online

Literatura uzta ona eman du 2020ak eta horren erakusle izan da Durangoko Azokako katalogoa; Debagoienekoek sinatutako lanak ere, hainbat. Bi argitaratu ditu Oihana Arana Eskoria-tzarrak: "Urte aberatsa izan dut eta asko hausnartu dut sorkuntzari buruz. Bertsolari moduan bi sari polit jaso ditut; bai, baina ez dut kantatu nahi dudan pertsonekin, nahi dudan formetan eta nahi dudanari buruz".

"KULTURA SEGURUA" DELA ALDARRIKATZEKO ASMOZ SORTU DUTE ALERTA GORRIA

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Donostia Zinemaldia

Debagoieneko aktoreak eta zinegileak izan dira *Akelarre*, *Arzak since 1897*, *Patria* eta *Hil kanpaiak* filmekin.

Durangoko Azoka

Debagoieneko ekoizpen asko -literatura eta musika-, *streaming* bidezko kulturaren plazan.

'La trinchera infinita'

Bi Goya sari jaso ditu eta Oscarretarako izendapena lortzeko bide luzean da.

Gure Zirkua: Arrasate

Irailetik azarora bitartean Arruena parkean izan ziren eta 30 emanaldi eskaini zituzten; sarrera guztiak agortu ziren.

Alerta Gorria

Kultura industriako profesionalek abiatu dute plataforma, sektorearen gabeziak ikustarazteko.

Kepa Errasti aktorea

Urte emankorra izan du: telebistan *Barre libre*a eta *Etxekoak* saioan jardun du eta bi lan estreinatu ditu antzokietan.

Urmuga ekimena

Natura eta musika bat eginez, mendirik mendi, Euskal Herria zeharkatu du jaialdi ibiltariak.

Urte berri on guztioi!

ECHO

comercial BRUNET

Telleria 2, Labegaraieta, BERGARA.
943 76 31 52 • www.comercialbrunet.com




ANIBAL CARMONA
ARGAZKILARIA **ARRASATE**



Mendizaletasuna asko hazi da, bizikleten salmentak gora egin du, eta bidegorrien eta oinezkoendako guneen aldeko apustua ikusten da.



Kontzientzia ekologikoaren falta sumatzen dut; hau da, arduraz kontsumitzea, plastikoa saihestea eta lurrera zaborrik ez botatzea.



OIHANE PILDAIN
BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA **ARRASATE**



Normalitate berri honi aurre egiteko indarrak batu eta saretu egin gara, Arrasateko Bilgune Feminista sortuz. Ehuntzen jarraitzen dugu.



Hau ez da osasun krisia soilik, askotarikoa da. Aurrez zeuden ezberdintasun eta zaurgarritasun egoerak areagotu besterik ez da egin.



CARLOS URANGA
HERRITARRA **ARRASATE**



Gazteak izaten ari diren erresilientzia-, egokitze- eta hobetze-gaitasunak: geroz eta gehiago/hobeto informatzen eta komunikatzen dira.



Krisiak gazteekiko izan duen eragin handia: enplegua suntsitzea, diru galera eta horren ondorio suntsitzailak; ziurgabetasuna, esaterako.



NEREA OLMEDO
UDA-KO KIDEA **ARETXABALETA**



Eragileen arteko elkartasuna. Familian, aire librean, egiten diren ekintzak indartu dira, hurbileko harremanak estutuz, beste batzuk urrundu arren.



Neska-mutikoei gure instalazioetan ezin gozatu izana kirola eginaz. Herrian sortutako isiltasuna eta iluntasuna, egoerak beldurtuta.



IXAK SARASUA
HERRITARRA **ARETXABALETA**



Pasatakoak lagunduko digu barneratzen gero eta gehiago edukitzeko hazteko bide horren amaieran ez dela ezer onik, eta zerbait aldatu behar dela.



Bakoitzaren lehentasunak azaleratu dira, eta askorena era azeleratuan kontsumitzen jarraitzea dela ikusteak atsekabetu egin nau.



IBONE AREJOLALEIBAR
HERRITARRA **ESKORITZA**



Ama izan berri naizela, hori esango nuke. Garai zail hauen aurrean, bizitza berri baten sorkuntzak azaldu ezinezko emozioa eragiten dit.



Ikasleekin online eskolak. Modu honetan, gertutasuna falta izan da, eta zuzeneko harremana ezinbestekoa da laguntza eskaintzeko.



JAVI ALTUNA
HARAKINA **ESKORITZA**



Jendeak etorkizunari begiratzeko duen indarra azpimarratuko nuke. Nolabait esateko, positibotasuna egoera zailen aurrean.



Jendearekin egon ahal ez izatea izan da urteko gauzarik gogorrenetakoa. Sozializazio faltak eragin handia egin dio gizarte osoari.



NEREA ALTUNA
HERRITARRA **LEINTZ GATZAGA**



Eman eta jaso ditudan besarkadak eta lagunekin egindako topaketak. Gutxi izan arren, horiek izan dira nire arnagune onenak.



Gauza eskasen artean ezin aukeratu ibili izana ez da seinale ona. Aukeratzekotan, batzuetan inguruan sumatzen dudana alaitasun falta.



JOSEBA JAUREGI
HERRITARRA **ARAMAIO**



Herriko denden zerbitzuaz konturatu gara. Salmenta zuzenari ere balioa eman zaio; eta baita baserri munduari ere, gutxietsia zegoen eta.



Jendeak hartu duen beldurra. Hori ez da ona, beldurrak ez digu uzten dugun onena ematen, blokeatu egiten du. Jende asko jota ikusi dut.



MERTXE NAFARRETE
HERRITARRA **ARAMAIO**



Aurtengo urteak aukera eman digu etxean denbora gehiago egoteko; nire kasuan, amarekin denbora gehiago egoteko aukera izan dut.



Etxetik ezin mugitu izanak ekarri du gure amak familiartekoen bisitarik ez jasotzea; birramona izan da, eta umea ezin ezagutzea...



“Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.”

Xabier Lete

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



PILI ARIN
HERRITARRA **BERGARA**



Etxean ordu gehiago igaro behar izanagatik, sormena handitu eta eskulanei eskainitako denbora gehitzeko aukera izan dut.



Denbora luzean zehar familiarekin ezin elkartzea gogorra izan da, baita nire ohiko bizitzako aktibitateak galtzea ere.



PELLO TXINTXURRETA
ENPRESA GERENTEA **BERGARA**



Gustukoak ez ziren neurriak hartu behar izan baditugu ere, krisi honek banandu beharrean talde modura indartu egin gaitu.



Beldurra nagusitu da pertsonengan, bai adineko pertsonen artean, baita gizartean orokorrean, eta baita arlo ekonomikoan ere.



AMAIA SANTAMARIA
ARTISTA **BERGARA**



Itxialdian zehar bizi izan genuen egoerak agerian utzi zuen zenbatekoa den kulturaren garrantzia eta beharra.



Betidanik zigortua egon den kulturagintzaren sektorea kolpatu du bizi dugun egoerak, eta orain are eta zigortuago geratu da.



ZUMAIA ELKORO
HEZITZAILEA **ANTZUOLA**



Kulturak aurrera egin izana txalotuko nuke: Durangoko Azoka, herrian egindako ekitaldiak eta gazte txokoa bera ere irekita izatea.



Albiste batzuen oihartzuna: Maradonaren heriotzaren protagonismoa azaroaren 25ean; eta errefuxiatuen egoeraren aurrean isiltasuna.



IBON GEZALAGA
AKE-KO PRESIDENTEA **ANTZUOLA**



Oso positiboa izan da Eztalako aldagela berriak egin izatea aurrean; etorkizunean herrian baliabide garrantzitsua izango dugulakoan nago.



Alderdi negatiboari dagokionez, berriaz, birusagatik nahiz bestelako heriotzagatik galdu ditugun herritar gertukoak daude.



JOXEFE DIAZ DE TUESTA
PENTSIODUNA **OÑATI**



Pandemia garaian, zerbitzu publikoen garrantziaz jabetu gara. Osasun eta hezkuntza sistema publiko sendoak behar ditugu.



Mingarria da gurea izatea koronabirusak hildako pertsona gehien dituen herrietako bat. Non daude elkartasuna eta auzolana?



GARAZI EROSTARBE
TXIRINDULARI OHIA **OÑATI**



Hainbat esparrutan modu telematikoan lan egiteko egon den aurrerapena. Era horretara bizitzen eta lan egiten ikasi dugu.



Pandemiak eragin dituenak eraginda ere, jendearen jarrera ez da batere aldatu. Zaurgarrienak zaurgarriago dira orain.



ENDIKA RUIZ
ALOÑAREN ENTRENATZAILEA **OÑATI**



Zaila da zerbait ona aipatzea. Izan ere, izan ditudan pozak ez dira poz borobilak izan. Txanponaren alde ona ez da oso ona izan 2020an.



Zorionez, ez dut koronabirusa gertu eduki, baina eragindako ondorioak oso latzak izan dira: ezjakintasuna, arrakalak, desorekak, krisia...



ARGIDER TXURRUKA
ERIZAINA **ELGETA**



Kutsadura murriztu eta airearen kalitatea hobetu egin da. Gainera, mendien eta basoen garrantzia baloratzen hasi da jendea.



Gaur egungo gizartean modu boluntarioan ezer gutxi egiten dugu, eta diruari, berriaz, garrantzi handiegia ematen diogu.



MIKEL ELKORO
IRAKASLEA **ELGETA**



Hurbil tokatu zaidanez, Altsasuko gazteak, nolabait, kartzelatik ateratzea. Ezaguna dut epaituetako bat, eta asko poztu nau albiste horrek.



Zaldibarko zaborteziaren inguruan gertatutakoa. Azaleratu egin da azpian zegoen zikinkeria ekologikoa eta politikoa. Oso larria da.



Ongi etorri 2021!



BEROA OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2 | Loramendi 6
ARETXABALETA

GIZARTEA 2021

Etorkizunera begira,
zientziari esker

IBANE ABASOLO OLAORTUA / IKERLARIA BARTZELONAKO VALL D'HEBRON OSPITALEAN

Apirilean idatzi nuen azkenengo aldiz talaia honetan. Konfinamenduaren erdian, zaila zen pandemiaren ostean zer etorriko zen sumatzea. Etxezuloan sartuta eta eskola barik, egunerokotasunak gainditzeko ninduen. Zortzi hilabete geroago, behelaino itxi hura zabaltzen doala dirudi. Zerua ikusten hasi gara eta etorkizuna zelakoa izango den sumatu daiteke.

2020a koronabirusaren hedapenaren urtea izan da. Urtarri-lean apenas genekien ezer birus honen gainean eta abenduan hirugarren olatuaren kontuekin gabiltza.

Ziurgabetasunetik ziurtasunera

Asko ikasi dugu azken urte honetan, baita zientziaren arloan ere. Hasteko, urtarilaren 10ean argitaratu zen *Virological.org*-en birusaren sekuentzia, bere kode genetikoa, alegia. Apirilean, berriaz, konfinamenduaren erdian, oinezkoek ez genekien ezer aerosolen edo asintomatikoaren gainean. Izan ere, maskara zuzen jartzearekin nahikoa geneukan. Bitartean, eta denborarik galdu barik, birologoak

eta epidemiologoak hor zebiltzan, datuak jasotzen, argitaratzen eta eztabaidatzen. Eta eztabaida garrantzitsuak egon dira, asintomatikoaren kutsagarritasunaren kontura edo tratamendu baten edo bestearen onurez.

Edozelan ere, azkenean, esperimentu eta saio kliniko ezberdinetako datuak elkarren ondoan ipinita, ziurgabetasunetik ziurtasunera salto egiten dugu zientzialariok. Eta salto hori egitea, putzu baten gainetik pasa behar denean bezala, batzuei beste batzuei baino gehiago kostatzen zaie.

Azken batean, zientzialaria izan edo ez, salto egiten dugu denok -Trump modukoek, agian, ez-; eta saltoz salto hor gaude, birusaren hedapena eztabaidatzetik txertoaren hedapenaz hitz egitera. Bada zerbait.

Salto egitea falta da

Kontuak horrela, 2021a txertoaren urtea izango da, dudarik gabe. Aztarnari edo rastreadoreak behar izango dira, ez kontaktatuak kontrolatzeko bakarrik -horretan huts egin dugu-, baizik eta txertoa jaso dutenen eta jaso ez dutenen gorabeherak jarraitzeko. Nazioarte ezberdinek milioika euro ipini dituzte koronabirusarentzako txertoak garatzeko, eta, milaka boluntarioetan saiatu ostean, nahiko dosi ekoiztu eta herritarren eskura ipintzeko. Hau idazten ari naizen momentuan, sei txerto ezberdin daude eskuragai, kopuru murrizetan bada ere, zenbait herrialdetan, Txina, Errusia, Erresuma Batua, Kanada eta Ameriketako Estatu Batuak barne. Europako Bata-sunera ere laster iritsiko dira. Modu batera edo bestera, lehe-

nago edo geroago, hasiko da txertoa hedatzen gure artean ere, aurreko urtean koronabirusa hedatu zen modura. Hain zuzen ere, zientzialarien lana, industria farmazeutikoaren bul-tzada eta gobernu ezberdinetako diru zaparradak ezinbestekoak izan dira txertoaren hedapena egia bihurtu ahal izateko. Eta orain, berriaz, gure txanda da.

Logistika kontuak alde batera utzita, jende askoren ardura da ea txertoak nahi gabeko ondorioak edo albo-efektuak izango dituen. Txertoa jaso edo ez jaso, horixe bera da euren dilema. Eta nik, zientzialaria naizelako, agian, salto egitea falta zaiela pentsatzen dut. Zientzialariak putzu horren beste aldean daude aspalditik. Saio klinikoetan aztertu diren txertoak seguruak eta eraginkorrak dira, epe motzera.

Ikerlariak aurrean dituzten erronkak beste batzuk dira. Txerto guztiak izango dira eraginkorrak epe luzera? Eragin-kortasun bera izango dute guz-tiek? Biztanleriaren ze ehuneko txertatu beharko da birusaren hedapena murrizteko? Zer egin daiteke txertoa azpigaratutako herrialdeetara iristeko? Birusa aldatzen bada txertoa aldatu egin beharko da? Txerto-aztarnarien lana garrantzitsua izango da datorren urte honetan. Zenbat eta datu gehiago jaso, orduan eta bizkorrago eramango gaituzte zientzialariak hurrengoko putzura eta hurrengoko saltora.

Egin dezagun, beraz, urteko lehenengo saltoa eta esan diezaiozun bai txertoari. Garrantzitsua da zientzialariontzat eta garrantzitsua da, era berean, gizarte osoarentzat.



**SAIO KLINIKOETAN
AZTERTU DIREN
TXERTOAK SEGURUAK
ETA ERAGINKORRAK
DIRA, EPE MOTZERA**



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Ongi etorri 2021

Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

EKONOMIA 2021

2021. urtea guk geuk idatziko dugu



IÑAKI CASAS / KOMO KOMUNIKAZIO KORPORATIBOKO KOMUNIKAZIO ETA PROTOKOLO AHOLKULARIA

Ekonomia, norbaitek zioen bezala, aldarte bat bada; asko egin beharko dugu datozen hilabeteetan hura aldatzeko eta hazkunde jasangarriaren bidera itzultzeko. Etorkizun hurbilean, osasunaren ikuspegitik, kolektiboa immunizatuko duen txertoaren zain gaude, horrekin normaltasunera itzultzeko; eta, ikuspegi ekonomikotik, Europako funtsen laguntzaren zain.

Hala ere, birusa iritsi arte egiten genuen gauza bera egiten jarraitzen dugunez, argi dago

pandemiak agerian utzi duen krisi sozial eta ekonomikotik irtetea eragozten duten akats berberak errepikatuko ditugula etorkizunean.

Entzutea, parte-hartzea...

Ironiaz eta penaz begiratzen diet otsailari eta martxoari. Krisi honetatik pertsona hobeak izaten aterako ginela esaten zen. Bai, ala? *Big data*-ren unibertso betean, zenbakiak alde batera utzi nahi izan ditugu. Inoiz gezurrik esaten ez diguten eta gure

lotsak eta beldurrak ezkutatzea interesatzen zaigunean interpretazio maltzurra egiten diguten horiek.

Errealitatea ukalezina eta gorrora da. Jendea hiltzen da egunero, eta gure ekonomia ukitutako dago. EAEko Administrazioak hamar puntuko hazkunde negatiboa espero du 2020an, eta 2021erako zazpi puntuko erre-kuperazioa. Azken urtean 1.753 enpresa itxi dira Euskadin. Kaleratzeak eta langabezia, ERTE izeneko horren azpian.

Eustat-ek web plataforma bat sortu du, Euskadik Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburu eta jomugetarantz izan duen aurrerapena kuantifikatzeko. Atera zuen ondorioak.

Hala ere, baikortasunerako seinaleak ere badaude. Debagoienean, Etorkizuna Eraikiz da etorkizunari eman behar zaion erantzunaren adibide. Entzutea, herritarren parte-hartzea, berrikuntza soziala da beharrei modu iraunkorrean erantzungo dien eredu bat erai-

kitzeko abiapuntua, eta ongizate-egoera horren lekukoa hartuko duena.

Izan ere, utzi alde batera globalizazioa eta galde iezaiozu zeure buruari zer den gurea, zeren bidaia honetan, bizitzakoan, ez baita inoiz bakarrik ibiltzen.

Ez gara bakarrik birus hilgarri baten aurka borrokatzen ari. Historia gizartearen heldutasun-maila neurtzen ari da, inoiz ikusi gabeko erronka baten aurrean.

ZENBAKIAK ALDE
BATERA UTZI NAHI
IZAN DITUGU

Bergara •
metagra
México •
Group

Urte berri on!

KIROLA 2021

Gauzak utzi genituen tokian hartzeko urtea



IBAN PEREZ HERNANDEZ / GIPUZKOAKO TRIATLOI FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Badoa 2020a, eta, horrekin, berri ilunez betetako urte bat kirolari dagokionez. Ez dugu bailararik irten beharrik ikusteko martxoan hasi zen egoerak ze ondorio ekarri zituen: kirolarien eta klub jarduna etetea, antolatzeak ziren kirol ekitaldiak bertan behera gelditzea... eta ezin jakin noiz arte izango genuen egoera hori. Asko ikasi dugu egoera harrigarri batetik. Inork ezin zuen espero Estatu mailako alarma egoera bat bizi izatea, eta horrek ekarri zuen guztia.

Derrigortuta sentitu gara genuenaz gogoeta egitera eta ohituta geunden zenbait gauza egitera, birpentsatzera nola atera ahal ginen aurrera.

Lehiaketa birtualak bizi izan ditugu: arrabol gainean etxetik atera gabe tropelean ibili gara; Espainiako Triatloi Txapelketa bat ikusteko aukera izan dut... -bai, parte hartzaileak etxean zeuden-. Eta askok urtea lasterka egiten bukatuko dute, San Silvestre probetan... baina aipatutako era birtualean.

'Normaltasun zahar' bihurtzea

Erronka pila bat ditugu kirol munduan 2020ak utzi dizkigun ondorioei aurre egiteko. Kirola egiteko era berri hauek gelditzea iritsi dira?

Eta okerrean izango da kirolari batentzat -klub, antolatzaile, erakunde...- bihar edo etzi zer gertatuko den ez jakitea, kontuan izanda egun batetik bestera mugikortasun neurriak aldatzen dituztela.

Hori ere izango du 2021ak. Izan ere, 2020ko martxoan bizi izan genuen geldialdi hori kon-

tuan izanda, orokorrean kirola egin ahal izan dugu... baina gustatuko litzaidake *normaltasun berria* bilakatzea *normaltasun zahar* aurretik ditugun hilabete hauetan.

Pandemia garai honetan gogorren kolpatuak izan diren etxeko gazteenak berriro eskola-kirolera bueltatzen ikusi nahi ditugu. Horrenbestez, ea kirol ekitaldiak hain aberatsa den gure bailaran berriro ikusten dugun kirol agenda beteta. Izan ere, hasierako hilabete hauetan kosta egingo bada ere, ziurrenik, espero dugu 2021a atzean utzi dugun urtea baino hobeagoa izatea -aipatzen da ziurrenez hirugarren olatu batek kolpatuko gaituela-.

2021. urtea Olinpiar Jokoetan ere zentratuko da -eta, ziurrenik, egingo dituzte, baina Japoniako publikoarekin bakarrak-, eta gehien profesionalizatuta dauden kirolak hor izango ditugu, ihesbide gisa, errealitate gogorraren aurka, baina gure bailaran nagusi den kirol amateurrak borrokan jarraituko du *normaltasun zahar* hartara itzultzeko.



KIROL AGENDA
BETETA IKUSI NAHI
DUGU DEBAGOIENEAN

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Urte
berri on!

Iragarria jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

KULTURA 2021

Plaza publikoetan
elkartzeko gogoz

JONE ALAITZ URIARTE / ARTE-PROGRAMATZAILEA

Badirudi gutariko asko gogotsu gaudela 2020. urte alderantzizko honi bukaera emateko. Esperantza guztiak urte berriko zerumugan eta Ameriketako Estatu Batuetatik edo Alemaniatik edo, agian, Oxford-etik etorriko den bakuna horretan jarri ditugun arren, krisialdi honen akabera egun batetik bestera ikusiko ez dugula badakigu. Hilabete gogorak datozkizu aurretik; beraz, sormenezko-jarrerara batetik eta aldarre kritiko batetik egin behar diogu aurre egoerari.

Bukatzear dagoen urte hau kaleak hustu eta pantailak bete diren urtea izan da. Kultur alorrean ere, museoetako, zinema eta kontzertu-aretoetako argiak itzali, eta egun batetik bestera esfera digitalera lekualdatu ginen: erakusketetara egindako bisita birtualak eta hainbat esparrutan adituak diren *online* mahai-inguruak, *streaming* bidezko kontzertuak, eta Filmin-en eta halako plataformetan estreinatu ziren hainbat eta hainbat pelikula... Dena

izan da arrotza, dena izan da birtuala.

Ekoizpen prozesuak sostengatu
Kultura sozializatzeko plaza publikoa izan da; ezagutzak, esperientziak eta sormenezko-lanak partekatzeko topagunea, eta, horregatik, gizarte baten ongizatearen –eta osasunaren– adierazle fidela. Kultura, baina, osasuntsu egoten jarraitzeko, eta berezkoa duen izaera kritiko eta autonomoa ez galtzeko, elikatu eta estimatu beharra

dago. Eta elikatze horren emaitzak ez dira beti kuantifikagarriak izaten, ezta diru balioetan errentagarriak ere, eta badakigu, tamalez, krisialdi garai hauek zer gertatu ohi den etekinak ematen ez dituzten horiek.

Zalantzarik ez dago, birtualitateak gure bizitzak gainezka egin dituen honetan, aurrez aurrekora buelta egiteko formulatan jarri beharko genukeela atentzioa, esfortzua eta diru publikoa. 2021ari begira, eta aipatutako aurrez aurrekora

bueltatzeko desirarekin, jarrai dezagun inoiz baino sutsuago ikusezinak diren artearen eta kulturaren ekoizpen prozesuak sostengatzen, babesten eta hauspotzen; idazleek idazteko aukera izan dezaten, artistek sortzeko espazio eta baliabideak izan ditzaten, ikerketak aurrera eramateko eta, azken finean, gizarte bezala aurrera egiteko. Izan ere, sormena hasieratik elikatu beharra dago, plaza publiko horietan zer partekatu izateko.

KULTURA ELIKATU ETA
ESTIMULATU
BEHARRA DAGODebagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Ongi etorri
2021

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97

FAGOR 

Whirlpool

CANDY
Otsein

Ferrol

COINTRA

RED sare
teknika



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaille Ofiziala

FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

URE BEZEROAK:

 basque
culinary
center

AIAIA 
Asociación de Industrias Alimentarias
de la Península Ibérica

 REAL SOCIEDAD
DE FÚTBOL

35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

Urte berri on!

www.etxe-lan.com

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)